

2022

Jarduera Soziosanitarioaren Memoria

Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia, 2021-2024

Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
2022ko abendua

AURKIBIDEA

LABURDURA ETA AKRONIMOEN AURKIBIDEA	3
1. SARRERA	4
2. GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOA.....	5
1. Gobernantza Soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena	5
2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren antolaketa	11
3. Finantzaketa soziosanitarioko esparru partekatua	13
3. ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA	22
4. Egoitza-zentroetatik historia klinikorako sarbidea izatea	22
5. Historia soziosanitarioa	23
6. Aginte-taula: datuetan oinarritutako erabakiak hartzea	27
7. Elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretua.....	27
4. PREBENTZIO SOZIOSANITARIOA	30
8. Prebentzio soziosanitarioko esparru koordinatua zehaztea	30
9. Arrisku soziosanitarioa zehazteko tresna	32
5. ARRETA SOZIOSANITARIOA.....	35
10. Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren hedapena	35
11. Arreta soziosanitarioaren xede-kolektiboen jarduketak	46
12. Arreta goiztiarra eta hezkuntzako eremu soziosanitarioa garatzea	46
6. I+G+B SOZIOSANITARIOA.....	51
13. Arreta soziosanitarioaren ataria. Ezagutzaren sorketa eta hedapena.....	51
14. I+G+B soziosanitarioaren arloko politikei eta ekimenei buruzko erreferentzia-nodoa ...	57
15. Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik	60
7. ERANSKINA. PROIEKTU PILOTU SOZIOSANITARIOEN ERREGISTROA	62

LABURDURA ETA AKRONIMOEN AURKIBIDEA

AG	Arreta goiztiarra
ASB	Arreta Soziosanitarioko Buletina
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EGK	Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
DGOM	Datuen Gutxieneko Multzoa
EABJ	Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa (Eusko Jaurlaritza)
EEBBS	Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioa
ASEK	Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua
ASZ	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza, Osasun Saila (Eusko Jaurlaritza).
POD	Pazientearen Oinarrizko Datuak
AFA	Arabako Foru Aldundia
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
LMAST	Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioko taldea, Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa ere deitua (LMAS).
EASE	Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024.
AGBL	Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea, lurralde historiko bakoitzean Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeentzako erreferentziako balorazio-talde gisa jarduten duena.
AGEL	Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Lantaldea
EUDEL	Euskadiko Udalen Elkartea
AGBL	Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldeak
LMAUko burua	Lehen Mailako Arretako Unitateko burua.
ASIE	Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak 2013-2017
DBLO	Datuak Babesteko Lege Organikoa (<i>3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko</i>).
SEM	Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa (COVID-19aren inpaktua apaltzeko eta ekonomia eraldatzeko modu ezohikoan mobilizatutako Europar Batasuneko funtsak).
KEB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Ekonomia eta Ogasun Saila (Eusko Jaurlaritza).
OSABIDE Integra	Osabide Global plataforman integratutako tresna informatikoa, ingurune ez-sanitarioetan (egoitza-zentroak, eguneko zentroak, etab.) Osakidetzaren historia klinikoan sartzeko.
ESIa	Erakunde Sanitario Integratua (Osakidetza). Pluralean, ESIak.
ASLE	Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak 2017-2020.
HOP	Haurren Osasun Plana
OGZ	Oinarriko gizarte-zerbitzuak
LH	Lurralde historikoak
LMAU	Lehen Mailako Arretako Unitatea
EUS	Egoitza Unitate Soziosanitarioak

1. SARRERA

[2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategian](#) urteko memoriak egitea jasotzen da ebaluazio-proposamen gisa. Ebaluatzeko formula hori proposatzen da, zaila baita jardueraren tasazio kuantitatiboa, luzetarakoa eta zehatza egitea eremu soziosanitarioan; izan ere, hierarkia- eta/edo egitura-harremanik ez duten eragile askok elkarrengaitan dute bertan.

Jarduera-memoriak, betiere egiaztatutako dokumentu-ebidentzietan oinarrituta, strategiaren aurrerapenaren berri emateko balio behar du sortzen diren proiektuak gehitzeko aukera eduki behar duen egutegi baten barruan; baina, horrez gain, konpromiso unibokoak ere eduki behar ditu Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) ezarritako kontrolaren ondorioz.

Horrenbestez, jarduera-arloen eta helburuen aurrerapenaren adierazle izateaz gain, bigarren urtez, memoria honek **irudi estatiko** bat ematen du, orobat, sistema sanitario eta sozialek kultura soziosanitarioa gehitzeko zer gaitasun dituzten jakin dezagun, eta, proiektuak progresiboak eta gainjarriak direla kontuan hartuta, **balorazio dinamiko** bat ere ematen du, proiektuek bere aldetik ekimen berriak nola katalizatzen dituzten erakusteko.

Era berean, ohiko metodologiaren ildotik, strategiaren indarraldia amaitzearekin batera, ebaluazio oso, zehatz eta arrazoituago bat egingo dugu lau urtean behin, legegintzaldiaren eta aldi estrategikoaren memoria gisa.

EAEko Koordinazio Soziosanitarioko talde teknikoari dagokio urteko bigarren memoria hori egitea, eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari aurkeztu zaio urteko lehen bilkuran (2023an izan da), baliozkotu dezan¹.

¹ 2022ko jarduera soziosanitarioaren memoria 2023ko otsailaren 6an egindako osoko bilkuran aurkeztu zitzaion Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari.

2. GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOA

GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Gobernantza Soziosanitarioak helburutzat du Osasuneko eta Gizarte Zerbitzuetako sistemen eta koordinazio soziosanitarioaren arteko harreman funtzionala sustatzea, koordinazio soziosanitarioa egituratuz Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Ereduan (2019) adostutako koordinazio-figurekin eta kontsulta- eta partaidetza-organoekin.</p> <p>Gobernantza Soziosanitarioa hiru proiektu hauen bitartez hedatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Gobernantza soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena. 1.2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren antolaketa. 1.3. Finantzaketa soziosanitarioko esparru partekatua.
1. Gobernantza Soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasieradata	Proiektu hau 2018an hasi zen, Gobernantza Soziosanitarioko Eredua egiteko Erakundearteko Batzordea eratu zenean, eta 2019an onartu zuen Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza).
Proiektuaren helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua onartzea. 2. Gobernantza Soziosanitarioko Eredua Euskadiko gizarte- eta osasun-zerbitzuen eremuetan hedatzea. 3. Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko komunikazio-plan bat egitea eta haren hedapena ebaluatzeko adierazleak definitzea.
Aurrekariak	<p><u>2017-2020 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak</u> garatzeko esparruan, Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioko Eredua onartu zen ASEKen (2019ko maiatzaren 6a), Erakundearteko Batzordeak Gobernantza Soziosanitarioko Eredua prestatzeko egindako lanen emaitza gisa (2018).</p> <p>Batzorde horrek zehaztu eta adostuta erabaki ziren EAEko gizarte-zerbitzuen eta osasunaren eremuen arteko harreman funtzionala antolatu behar duten figurak eta organoak.</p>

	<p>Koordinazio-elementu horien formulazio juridikoa egin zen, eta izapideak aurretiazko kontsulta publikoaren agindu bidez hasi ziren 2019ko irailean.</p> <p>Harrezkero, gobernantzari buruzko dekretuaren zirriborroa izapidetze juridiko-administratiboko hainbat fasetatik igaro zen, behin betiko testu bat lortzeko. Testu hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen (2022/12/07), eta 243. zenbakiko EHAAn argitaratu zen (2022/12/22).</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Izapidetze juridiko-administratiboaren prozedura osatzeko, eduki eta teknika juridikoko gaietan ekarpen dokumentala egin zen, eta, horrez gain, gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren proiektua izapidetzean eskatutako dokumentazioari buruzko alderdi formalei erantzun zitzaien.</p> <p>Halaber, dokumentu-lana egin zen gobernantzari buruzko dekretua hedatzera bideratutako estrategia definitzeko eta haren edukiak ekosistema soziosanitarioko hainbat eragileren artean (instituzionalak, politikoak, profesionalak, etab.) zabaltzera bideratutako komunikazio-gida bat egiteko.</p> <p>Azkenik, gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren zabalkundea eta komunikazioa sustatzeko ekintzen esparruan, eta, bereziki, erreferente soziosanitarioen figura, funtzioak eta harreman-eremua ezagutarazteko ekintzen esparruan, dokumentu- eta kudeaketa-lanak egin ziren Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa antolatze aldera (2022/04/26).</p>
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<p>Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren proposamena izapidetzen aurrera egite aldera, eta arau-proiektu hori argitaratzea eta zabaltzea lortze aldera, honako ekintza hauek burutu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • KEBaren txostena jasotzea Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzan (2022/01/31). • KEBak egindako txostenean jasotako oharrei erantzuteko memoria egitea (2022/02/07). • Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretu-zirriborroari dagokion memoria ekonomikoa aldatzea (2022/02/07). • Funtzio Publikoko Zuzendaritzari (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) txostena eskatzea (2022/02/16). • Dekretu-zirriborro berria egitea, KEBak planteatutako oharretan aipatutako alderdiak aldatuta (2022/03/15). • Erreferente soziosanitarioen figura aurkeztea Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketan (2022/04/26).

	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzio Publikoko Zuzendaritzak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) emandako txostena jasotzea (2022/05/02). • Funtzio Publikoko Zuzendaritzak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) egindako txostenean jasotako oharrei erantzuna ematea (2022/05/13). • EABJk gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren zirriborroaren espedientea onartzea (2022/05/19). • EABJren 133/2022 irizpena jasotzea (2022/07/20). • EABJren irizpenari erantzuteko memoriaren zirriborroa egitea (2022/08/18). • Arreta Goiztiarreko Batzorde Teknikoaren txostena jasotzea (2022/10/07). • Arreta Goiztiarreko Batzorde Teknikoaren txosteneko oharrei erantzuteko memoria egitea (2022/10/19). • Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren txostena jasotzea (2022/10/23). • Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txostena jasotzea (2022/10/24). • Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseiluaren txostena jasotzea (2022/10/27). • Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseiluaren txostenari erantzuteko memoria egitea (2022/10/27). • EABJren irizpenari erantzuteko memoria eguneratzea (2022/10/27). • Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretu-proiektuaren zirriborroa eguneratzea (2022/10/27). • Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari nahitaezko txostena eskatzea (2022/10/27). • Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena jasotzea (2022/11/23) • Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenaren ondorioei erantzuteko memoria egitea (2022/11/24). • Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren azken bertsioa egitea (2022/11/25). • Gobernu Kontseiluak gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren proiektua onartzeko erabakia hartzea (2022/12/07) • Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretua itzultzea (2022/12/14). • Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua 243. zenbakiko EHAAan argitaratzea (2022/12/22).
--	---

	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretua hedatzeko estrategia</i> prestatzea (2022ko iraila)². • <i>Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretuaren Komunikazio Gida</i> egitea eta argitaratzea (2022ko iraila)³.
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Proiektuaren jarduera-adierazle nagusia prozesu juridiko-administratiboaren aurrerabidea eta amaiera da, gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretua idatzeko, onartzeko eta argitaratzeko fase bakoitzean ezarritako eskakizunen arabera. Eusko Gobernu Kontseiluak proiektua 2022ko abenduaren 7an onartu zuen, eta, hala, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua 243. zenbakiko EHAAn argitaratu zen (2022/12/22).</p> <p>Gainera, <i>Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretua hedatzeko Estrategia</i> (2022) prestatu da, eta, horrez gain, Arreta Soziosanitarioko Atarian argitaratu dira Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretuaren Komunikazio Gida (2022) eta dokumentuak.</p> <p>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko Dekretua (2022) hedatzeko jardueren esparruan, Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa antolatu da (2022ko apirilaren 26a). Esparru soziosanitarioan funtzio horiek betetzen dituzten ehun profesional baino gehiago gonbidatu dira topaketara, edukia, koordinazio soziosanitarioko figura horren funtzioak eta harreman-eremua ezagutarazteko, gobernantza soziosanitarioaren hedapenaren esparruan. Topaketan gizarte-zerbitzuetako (foralak, mankomunatuak eta tokikoak) eta osasun-zerbitzuetako (Osakidetzako erakunde sanitario guztien ordezkariak) 72 profesionalak parte hartu dute. Saioaren bigarren zatian, talde-laneko dinamika bat egin da, 10 mahai mistotan antolatuta (eremu bakoitzeko profesionalak), eta ondoren, horri buruzko ondorioen dokumentu bat egin da.</p>
<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<p>Proiektu honen edukia aldeztatik adostu da erakundearteko batzorde batean, eta gainera, ASEK osatzen duten erakundeen babesa du.</p> <p>Era berean, gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren (2022) edukiak zabaltzeko lanen helburua da, argitaratu</p>

² *Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretua hedatzeko Estrategia* (2022ko iraila) dokumentuak osasun-sistemako eta gizarte-zerbitzuen sistemako profesionalen eskura jartzen du oinarritzko informazio erraza, EAEn arreta soziosanitario koordinatua eraginkortasunez eta sarean hedatzeko koordinazio-organo eta -figura bakoitzak bere gain hartu behar dituen baliabideei, rolei, funtzioei eta oinarritzko erantzukizunei buruzkoa.

³ *Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretuaren Komunikazio Gida* (2022ko iraila) dokumentuak modu erraz eta partzialean azaltzen ditu Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko Dekretua (2022) artikulatzen duten eduki nagusiak. EAEn arreta soziosanitarioa ahalbidetzen duten profesional, elkarte eta erakunde sozial eta sanitarioek jarduera asistentziala, antolaketakoa eta estrategikoa koordinatzen duten harremanen arkitectura ezagutarazteko helburuarekin prestatu da dokumentua.

	<p>ondoren, esparru sozial eta sanitarioko publikoentzako arau-esparru berria ezagutaraztea, eta, horrela, EAEko gobernantza soziosanitarioaren koordinazio-organo eta -figuren hedapenari ematen zaion babes instituzional, politiko, antolamenduzko eta profesionala indartzea.</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren proposamenaren izapidetze juridiko-administratiboa osatzeko lau urte igaro ondoren (2019-2022), proposamena Gobernu Kontseiluak onartu (2022/12/07), eta 243. zenbakiko EHAAn argitaratu da (2022/12/22).</p> <p>Dekretua egiteko prozesuaren oztopo nagusiak honako hauek dira: bi gobernu-arlok (Osasun eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailek) bultzatutako dekretu baten berezko konplexutasuna eta prozedura-eskakizunetara eta administrazio-betearazpenaren epeetara egokitu beharra.</p> <p>Proiektua egiteko prozesuan hainbat zailtasun izan dira, hain zuzen ere, garatzen ari den dekretuaren edukiari buruzko ezagutza espezifikokoak eta araugintza-teknikaren arloan eska daitekeen zehaztasuna bateratzeko gatazkak sortutakoak. Gorabehera horiek nabarmen moteldu dute proiektua egikaritzea.</p> <p>Gaur egun, proiektuaren erronkak komunikazioari eta hedapenari lotuta daude. Erronka horiek gainditzeko, komunikazio-estrategia bat proposatzen zaio ASEKi. Horrez bidez, erakunde bakoitzaren eskumen-autonomia errespetatuta, eremu bakoitzean mailakako komunikazio-prozesu bat garatuko da arlo estrategikotik eta erabakiak hartzeko arlotik. Beheranzko egitura-planteamendua izango du, azken finean, gizarte- eta osasun-zerbitzuen eremuko asistentzia-arlorra iristeko.</p> <p>Azken batean, egungo erronka nagusia koordinazio soziosanitarioan erantzukizuna duten erakunde, organizazio eta profesionalen konpromisoa eta gaitasuna da, lehenik eta behin, dekretuaren edukiak bitarteko eta kanal propioekin zabaltzeko eta, bigarrenik, organoen eraketa eta ezarritako rolak bere gain hartzea sustatzeko, gobernantza soziosanitarioa benetakoa izan dadin.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<p>Arlo sozialaren eta sanitarioaren arteko koordinazioaren konplexutasun funtzionalari mesede egingo dio gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuan (2022) juridikoki egituratutako koordinazio-organoak eta -figurak zabaltzea eta hedatzea.</p>

Dekretu hori osasun-sistemetako eta gizarte-zerbitzuen sistemetako asistentzia-mailen eta maila profesionalen arteko harremanak errazteko eta antolatzekeo tresna da, EAEko biztanleriaren premia soziosanitarioen arretan koordinazioa hobetzeko.

Zehazki, hauek dira horren onuretako batzuk:

- Arreta soziosanitarioko profesionalak ahalduntzea, batez ere asistentzia-arloan, rolak eta funtzioak betetzeko garaian, eta, azken batean, rol aktiboa izan dezaten herritarren premia soziosanitarioei emandako zuzeneko arretan eta koordinazio-mekanismoen abiarazpenean eta horien funtzionamenduaren hobekuntzan.
- Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioa jendartean ezagutzen laguntzea, bai eta arreta soziosanitarioaren arloan eduki etikoko txostenak eta irizpenak egiteaz arduratzen dela jakinaraztea ere.
- Herritarren beharrei erantzuteko eskuragarri dagoen Baliabide Soziosanitarioen Katalogoa ezagutzen laguntzea, finantzaketaren ardura duen erakundea edozein dela ere.
- Koordinazio soziosanitarioaren eredua ezagutzen laguntzea, eredu horren efikazia eta efizientzia hobetu nahi baitira. Eredu horrek, funtzionamendu egokia izateko, ez du egitura berririk behar gizarte- edo osasun-zerbitzuen sistemetan.
- Lan-esparru partekatua sustatzea, antolaketa eta sistema bakoitzaren historia, hizkera eta antolaketa-kulturak gainditzten dituen. Arreta soziosanitario efikazago eta efizienteago baten alde egingo du, non beharrak dituen pertsona profesional, organizazio, erakunde eta sistemen jarduketa-erdigunean kokatzen den.
- Kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzea, erakundearteko eta diziplina anitzeko organo gisa, autonomia-erkidegoko, foru-lurraldeko, eskualdeko edo udalaz gaindiko eta tokiko lurralde-eremuetan erabakiak hartzeari dagokionez proposamenak eta aholkuak emateko, jarraipena egiteko eta kontrola izateko.
- Koordinatzaile soziosanitario izendatutako profesionalak gizarte-zerbitzuen arloaren eta arlo sanitarioaren arteko koordinazio funtzionaleko rolak bere gain hartzea.

Euskadiko Baliabide Soziosanitarioen Katalogoa dekretu horren eranskin gisa argitaratu da, eta baliabide soziosanitarioen definizioa eta hornidura EAEko herritarren beharretara egokitzen jarraitzeko oinarriak ezartzen dira, eta katalogo hori eguneratzeko eta berrikusteko prozesua zehazten da.

	<p>Azkenik, dekretu hori argitaratuta, formalizazio juridikoa ematen zaio 2015etik jardunean ari den Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioari.</p>
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera esperodun - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p><u>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren</u> argitalpena (2022/12/22) hedapen-ekintza batzuekin osatzea aurreikusten da, harremanen arau-esparru hori zabaltzen laguntzeari begira.</p> <p>Helburu horrekin diseinatu dira hedapen-estrategia eta <u>komunikazio-gida</u>. Bi dokumentu horien helburua gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuan (2022) jasotako egiturak, baliabideak eta tresnak hedatzeko lanak antolatu eta erraztea da, koordinazio soziosanitario benetakoa lortzeko aurrerantzean, EAEko arreta soziosanitarioan inplikaturako erakunde, asistentzia-maila eta profesional guztiekin lankidetzan.</p> <p>Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretuaren hedapena modu efikazean osatzeko aukerak, beraz, dekretuaren zabalkunde-fasean dautza, bai eta ASEKeko erakundeek gida beren eskumen-eremuetan komunikazio- eta lan-material gisa zabaltzeko konpromisoa hartzean ere, horri buruz egin daitezkeen kontsulta guztiei erantzuteaz gain.</p> <p>Aitzitik, gobernantza soziosanitarioko eragile nagusiek — gizarte-arlokoek eta arlo sanitariokoek— zabalkunde batere edo aski ez parte hartzea mehatxu handia izan daiteke proiektuaren arrakastarako; hau da, kontsulta- eta partaidetza-organoen eraketan, eta arlo soziosanitarioa funtzionalki koordinatzeko rola bere gain hartzen dituzten koordinazio-figuren izendapenean.</p>
2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren antolaketa	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasieradata	2021eko martxoa.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea.
Proiektuaren helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta soziosanitarioa gobernu-ardatz gisa ikusaraztea. • Harreman-esparru egituratu bat ezartzea, Eusko Jaurlaritzako sailen artean arreta soziosanitarioa koordinatzeko.
Aurrekariak	<p>Osasun Sailean Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza berri bat sortzea, eta zuzendaritza horretan koordinazio soziosanitarioko eginkizunak sartzea, <u>Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuan</u> ezarritakoaren arabera.</p>

Lan-metodologia	2022an hainbat lan tekniko egin dira ASZri legegintzaldiko proiektu estrategikoak garatzen laguntzeko.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> • Batzorde Tekniko Iraunkorraren bilera (2022/02/22). • Batzorde Tekniko Iraunkorraren bilera (2022/12/23). • ASZren 2023rako aurrekontuen aurreproiektua egitea. • 2013-2020 Osasun Planaren ebaluazioan parte hartzea. • 2023-2028 Euskadiko Osasun Planaren osaketan parte hartzea, eta lantalde hauek koordinatzea: 3. taldea (bizi osoko ikuspegia duen zahartzea lortzea) eta 4. taldea (jasangarritasuna eta bikaintasuna lortzea EAEko asistentzia-sistema sanitario eta soziosanitarioen kalitateari, gizatiartzeari eta segurtasunari dagokienez).
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldearen bileren 4 akta. • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren akta, Historia Soziosanitarioaren finantzaketari ekitea eta EASEren 2021eko jarduera memoria onartzea (2022/01/17). • Batzorde Tekniko Iraunkorraren bileraren akta (2022/02/22). • Batzorde Tekniko Iraunkorraren bileraren akta (2022/12/23). • 2023rako aurrekontuen aurreproiektua egiteko dokumentazioa.
Proiektuak zer aliantza dituen	Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen duten erakundeak.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	<p>Lehen aldiz, XII. legegintzaldian, Koordinazio Soziosanitario Autonomikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailaren egituran txertatuta dago (Eusko Jaurlaritza). • Aurrekontu berariazkoa du EASE 2021-2024an jasotako konpromisoak garatzeko. • 2022ko urtarrilean, idazkari bat sartu zen ASZn. <p>Koordinazio Soziosanitario Autonomikoaren egitura paritarioa gizarte-zerbitzuen eremuko arduraduna izendatzeko zain dago.</p>
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeek arreta soziosanitarioaren alde egitea, Osasun Sailaren gobernu-arlo gisa (Eusko Jaurlaritza). • Jaurlaritzak eta ASEKek proiektu estrategikoen hedapena babestea EAEn koordinazio soziosanitarioko eredu eraginkorra sendotzeko.
Baloratu beharreko beste alderdi batzuk: - Zer bilakaera espero den	Koordinazio soziosanitarioko egungo talde teknikoak ikuspegia, eskarmentua, fidagarritasuna eta emaitza-orientazioa ematen ditu koordinazio soziosanitariorako proiektu estrategikoen garapenean. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Arreta

<ul style="list-style-type: none"> - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	Soziosanitarioko Zuzendaritzaren egitura propioaren zuzkiduratik erator daitezkeen aldaketen zain dago.
3. Finantzaketa soziosanitarioko esparru partekatua	
Proiektuaren egoera	Amaituta (2022ko abendua).
Proiektuaren hasiera-data	2021eko urtarrila.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorrerako Zuzendaritza (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • Araba, Bizkai eta Gipuzkoako osasuneko lurralde-ordezkaritzak. • AFA • BFA • GFA • EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte. • Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritza).
Proiektuaren helburuak	EAEko arreta soziosanitariorako finantzaketa publikoko esparru partekatu bat definitzea eta operatibizatzea.
Aurrekariak	<p><u><i>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak 2017-2020</i></u> txostenaren arabera, beharrezkoa zen «finantzaketa soziosanitarioko esparrua» proiektua garatzea, arretaren egituraketa soziosanitarioari laguntzeko.</p> <p>Hedapenaren zati gisa, eta horretarako eraturako Erakundearteko Batzorde baten barruan, baliabide-tipologia bat zehaztu zen haien finantzaketaren jatorriaren arabera, eta, ondoren, horren osagarri, honako diagnostiko hau egin zen: dauden finantzaketa-akordioak zer neurritan egokitzen zaizkion sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen lege-esparruari.</p> <p>Kontuan hartuta, batetik, arreta soziosanitarioko baliabideak finantzatzeko formulen heterogeneotasuna, eta bestetik, akordio horiek lege-euskarririk gabe geldituko direla 2020ko urriaren 2tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru-aldundi bakoitzaren arteko finantza-lankidetzaren eredu berri bat landu beharra dago arreta soziosanitariorako; halere, 2020a amaituta, eredu hori ez dute oraindik baloratu ASEKeko kide diren foru-erakundeek.</p>

<p>Lan-metodologia</p>	<p>Dokumentuak egitea, berrikustea eta aztertzea, eta dokumentu bakoitzari dagokion izapidetze juridiko-administratiboaren prozedurarekin osatzea.</p>
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<p>Hurrenkera kronologikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEko arreta soziosanitarioko finantza-lankidetzarako esparru-akordioa egitea, Osasun Sailak (Eusko Jaurlaritza) eta hiru foru-aldundiek sinatu beharrekoa (2022/02/25). • Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru-aldundien arteko arreta soziosanitarioko finantza-lankidetzarako esparru-akordioari buruzko justifikazio-memoria egitea (2022/02/25). • Foru-aldundi bakoitzeko arduradunei EAEko arreta soziosanitarioko finantza-lankidetzarako esparru-akordioaren proposamena jakinaraztea (2022/03/05). • Lurralde historiko bakoitzerako lankidetzeta-hitzarmen bateratuen bigarren proposamena egitea (2022/03/22). • Lurralde historiko bakoitzeko foru-arduradunei arreta soziosanitariorako lankidetzeta-hitzarmenen edukia jakinaraztea (2022/03/26). • Nahasmendu mental larria duten pertsonen Bizkaian arreta soziosanitarioa emateko lankidetzeta-hitzarmena luzatzeko erabaki-proposamena egitea (2022/03/29). • Nahasmendu mental larria duten pertsonen Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena luzatzeko akordioaren (2023) justifikazio-memoria egitea (2022/03/30). • Arreta soziosanitarioko lankidetzeta-hitzarmenaren proiektua negoziatzeko azken aktak egitea. • Lurralde historiko bakoitzean arreta soziosanitarioa emateko lankidetzeta-hitzarmen bateratuei buruzko txosten juridikoa jasotzea (Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorteko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza) (2022/05/09). • Arreta soziosanitarioko lankidetzeta-hitzarmenaren justifikazio-eta ekonomia-memoria egitea (1. bertsioa: 2022/02/15; 2. bertsioa: 2022/05/24). • Arreta soziosanitariorako lankidetzeta-hitzarmen bateratuen⁴ azken proposamena egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatzekoa (2022/05/30).

⁴ Hitzarmen horiek hiru motatako baliabide soziosanitarioak finantzatzen dituzte: gaixotasun mental kroniko larria duten pertsonentzako baliabideak; mendekotasuna eta desgaitasuna duten adineko pertsonen egoitza-zentroetako arreta soziosanitariorako baliabideak; eta lurralde historiko bakoitzeko egoitza-unitate soziosanitarioetan pertsonen arreta soziosanitarioa emateko baliabideak. Bizkaiko Lurralde Historikoan gaixotasun mental kroniko larria duten pertsonentzako baliabideak ez ditu finantzatzen, hitzarmen partikular bat baitute, 2023ko abenduaren 31ra arte luzatua.

	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta soziosanitarioa emateko lankidetza-hitzarmenaren proiektua negoziatzeko azken aktak sinatzea, Araba (2002/03/22), Bizkai (2022/05/25) eta Gipuzkoako foru-aldundiekin (2022/06/02). • Esparru-akordioari buruzko txosten juridikoa jasotzea (Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza) (2022/06/09). • Nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitariorako Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatzeko akordioari buruzko txosten juridikoa jasotzea (Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza) (2023) (2022/06/21). • Osasun Sailak (Eusko Jaurlaritza) eta hiru foru-aldundiek sinatu beharreko EAEko arreta soziosanitarioko finantza-lankidetzarako esparru-akordioari buruzko legezketasun-txostena jasotzea (Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) (2022/07/08). • Esparru-akordioari buruzko KEBaren txostena jasotzea (Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza) (2022/07/18). • Legezketasunari buruzko txostena jasotzea (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza), arreta soziosanitariorako lankidetza-hitzarmen bateratuei buruzkoa (2022/07/21). • Nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitariorako Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatzeko akordioari buruzko KEBaren txostena jasotzea (Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza) (2023) (2022/09/27). • Arreta soziosanitariorako lankidetza-hitzarmen bateratuei buruzko KEBaren txostena jasotzea (Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza) (2022/10/05). • Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko finantza-lankidetzarako hitzarmen-proposamenari buruzko justifikazio-memoria osagarria egitea, arreta soziosanitariorako (2022/10/07). • Nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatzeko akordioa prestatzea, Gobernu Kontseilura bidaltzeko (2023) (2022/09/27). • Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena prestatzea, zeinaren bidez jakinarazten baita finantza-lankidetzarako
--	---

	<p>esparru-akordioa sinatuko dutela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun Sailak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundiek eta EUDELeK, EAEko udalerrri guztien ordezkari gisa, EAEn arreta soziosanitarioa emateko (2022/10/14).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenak prestatzea, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko arteko finantza-lankidetzak hitzartzea baimentzeko, arreta soziosanitarioarako (2022/10/14). • Gobernu Kontseiluaren erabakia onartzea, nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioarako Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzahitzarmena luzatzeko (2023), eta Gobernu Kontseilura bidaltzeko (2022/10/04). • Gobernu Kontseiluak finantza-lankidetzarako hiru hitzarmenak onartzea (2022/10/18). • Gobernu Kontseiluak esparru-akordioa onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundien eta, EAEko udalerrri guztien izenean, EUDELen artekoa, EAEn arreta soziosanitarioa emateko finantza-lankidetzarako (2022/10/18). • Eusko Legebiltzarrari Gobernu Kontseiluak onartutako hiru hitzarmenen berri emateko izapidea betetzea (2022/10/26) eta gehieneko epea igarotzea (20 egun) Eusko Legebiltzarrak hitzarmenen aurka dagoela jakinarazi gabe (2022/11/10). • Eusko Legebiltzarrari nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzahitzarmena luzatzeko akordioaren (2023) berri emateko izapidea betetzea (2022/11/10) eta gehieneko epea igarotzea (20 egun) Eusko Legebiltzarrak horien aurka dagoela jakinarazi gabe (2022/11/22). • Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 2019ko abenduaren 17an nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko sinatutako lankidetzahitzarmenaren luzapen-erabakia sinatzea (2022/12/29).
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Proiektuaren jarduera-adierazle nagusia Osasun Sailaren eta foru-aldundien artean arreta soziosanitarioa emateari buruzko esparru-akordioaren proposamenak eta finantza-lankidetzarako hitzarmenak egitea da, eta, azkenean, dagozkien prozesu</p>

juridiko-administratiboekin amaitzea, esku hartzen duten erakundeek dokumentu guztiak sina ditzaten:

[Hurrenkera kronologikoan]

- Gobernu Kontseiluak [Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak 2019ko abenduaren 17an nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitariorako sinatutako lankidetzaz hitzarmena luzatzeko erabakia](#) onartzea, bai eta hitzarmen horrek dakarren 5.000.000 eurotik gorako gastua ere (2022/10/04).
- Gobernu Kontseiluan EAEn arreta soziosanitarioa emateko finantza-lankidetzarako [esparru-akordioa](#) onartzea, Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundien eta, EAEko udalerrri guztien izenean, EUDELen artekoa (2022/10/18).
- Gobernu Kontseiluak [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko finantza-lankidetzako hitzarmena](#) onartzea, [egoitza-unitateetan \(EUS\); mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, eta gaixotasun mental larri eta kronifikatua dutenentzako baliabideetan \(egoitza-zentroak, laguntzak dituzten etxebizitzak eta eguneko zentroak\) arreta soziosanitarioa emateko](#) (2022/10/18).
- Gobernu Kontseiluak [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko finantza-lankidetzarako hitzarmena](#) onartzea, [egoitza-unitateetan \(EUS\) eta/edo mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan arreta soziosanitarioa emateko](#) (2022/10/18).
- Gobernu Kontseiluak [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko finantza-lankidetzako hitzarmena](#) onartzea, [egoitza-unitateetan \(EUS\); mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, eta gaixotasun mental larri eta kronifikatua dutenentzako baliabideetan \(egoitza-zentroak, laguntzak dituzten etxebizitzak eta eguneko zentroak\) arreta soziosanitarioa emateko](#) (2022/10/18).
- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak 2019ko abenduaren 17an nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren luzapen-erabakia sinatzea (2022/12/29).

<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<p>Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen duten erakundeak, eta, bereziki, hiru foru-aldundiak, dagozkien lankidetzak-hitzarmenen sinatzaile gisa.</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>2022. urtean, eta EAEn arreta soziosanitarioa hedatzeko erakundearen arteko 25 urteko lankidetzak- eta koordinazio-ibilbide luzearen ondorioz, eta EASEk hartutako konpromisoari erantzunez, erakundearen arteko esparru adostu bat egituratzen jarraitu da, arreta-ereduaren jarraipena sustatzeari begira.</p> <p>Esparru horren barruan, baliabide soziosanitarioak finantzatzeko eredu partekatua bat atera da ondorio gisa, non Osasun Sailaren eta foru-eremuko baliabide soziosanitarioen erakunde titularren arteko finantza-lankidetzak⁵ garatzeko baldintzak ezartzen diren.</p> <p>Horrenbestez, <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailen, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundien eta, EAEko udalerrri guztien izenean, EUDELen arteko EAEko arreta soziosanitarioko finantza-lankidetzarako esparru-akordioan</i> jasotzen da Osasun Sailak konpromisoa hartzen duela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eremuko baliabide eta zerbitzu soziosanitarioetako prestazio sanitarioen finantza-lankidetzari eusteko. Akordio horrek ez du eduki ekonomikorik, baliabide soziosanitarioen finantzaketa-baldintzak berariaz formulatzen baitira Osasun Sailak eta dagokion foru-aldundiak lurralde historiko bakoitzerako zehazten dituzten finantzaketa-hitzarmenetan.</p> <p>2022an adostutako finantza-lankidetzaren ereduaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta foru-aldundi bakoitzaren artean hiru hitzarmen egin eta sinatu dira —bi urteko indarraldia izango dute, eta beste bi urtez luza daitezke—, baliabide soziosanitarioen titular diren aldetik —kudeaketa-eredua alde batera utzita—, eta lankidetzaren eduki ekonomikoa eta hiru baliabide motetan lankidetzak nola erabili zehazteko baldintzak ezarri dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzak. - EUS. - Gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonentzako baliabideak.

⁵ Tradizioz, Osasun Sailak (Eusko Jaurlaritza) lagundu izan du arreta soziosanitariorako prestazio sanitarioak finantzatzen, hiru modalitate handitan oinarrituta: a) finantzaketa partekatua dagokion foru- edo udal-erakundearen eta Osasun Sailaren artean, plazaren kostua bitan banatuz normalean; b) Osasun Sailak parte hartzea foru-titulartasuneko baliabideen finantzaketan, modulu bakoitzean ezarritako zenbatekoarekin, eta c) Osasun Sailak baliabide soziosanitarioen finantzaketa bakar eta osoa ematea.

Lurralde historiko bakoitzean, hitzarmen horiek Osasun Sailak aipaturako hiru baliabide moten finantza-lankidetzari laguntzeko ezartzen dituen plaza kopuruaren eta zenbatekoen arabera zehazten dira. Hitzarmen horiek honako alderdi hauek hartzen dituzte kontuan lurralde historiko bakoitzean:

Arabako Lurralde Historikoa. Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenak finantza-lankidetzari planteatzen du hiru baliabide motetan. Nabarmentzekoa da gaixotasun metal larria duten pertsonen arreta emateko plaza berriak sortzen laguntzeko lankidetzari. Horregatik, 2022ko finantza-lankidetzari, 2021eko datuekin alderatuta, % 8,6 hazi da hiru baliabideek dituzten plazen guztizko kopuruari dagokionez, eta % 9,4ko igoera ekarri du Osasun Sailak foru-titulartasuneko baliabide soziosanitarioei eusteko bideratutako finantza-lankidetzaren zenbatekoan, 2021arekin alderatuta.

Bizkaiko Lurralde Historikoa. Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen bakarra bi baliabide motaren finantza-lankidetzari aplikatzen zaio: mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzak eta egoitza-unitate soziosanitarioak. Hitzarmenetik kanpo geratzen dira gaixotasun mental larria duten pertsonentzako baliabideak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzari-hitzarmena (2019) indarrean baitago 2023ko abenduaren 31ra arte.

2022ko Bizkaiko finantza-lankidetzari dagokionez, 2021eko datuekin alderatuta, egoitza-zentroetako plazen finantzaketa nabarmen handitu da. Lehen, 100 pertsona baino gehiagoko egoitzetako plazetara mugatzen zen finantzaketa. Hitzarmen berriak finantza-lankidetzari zabaldu du Bizkaiko egoitza publiko eta itundu guztietako plazak babesteko. Gainera, 2022an, zertxobait handitu da EUSetan plaza berriak hornitzeko finantza-lankidetzari. Hala, Bizkaian 2022an finantza-lankidetzarako adostutako baldintzei esker, finantzaturako plazen kopurua % 39,8 handitu da, eta BFaren titulartasuneko baliabide soziosanitarioen finantzaketaren zenbateko globala % 17,4, 2021arekin alderatuta.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa. Foru-aldundiarekin sinatutako hitzarmenak hiru baliabide moten finantza-lankidetzari garatzen du. Beste bi lurralde historikoetan ez bezala, Gipuzkoan hiru baliabide motetan plazak areagotzera bideratzen da finantza-lankidetzari. 2022ko finantza-lankidetzaren bidez, 2021eko datuekin alderatuta, plaza kopurua % 4,5 handitu da, eta Osasun

	<p>Sailak foru-titulartasuneko baliabide soziosanitarioei eusteko finantza-lankidetzaren zenbatekoa % 12,8, 2021eko datuekin konparatuta.</p> <p>Laburbilduz, baliabide soziosanitarioei eusteko eta horiek sortzeko finantza-lankidetzaren handitzera bideratutako % 3ko gehikuntza hiru lurralde historikoetan aplikatzen da, baina agerian uzten du lurralde historiko bakoitzeko baliabide- eta plaza-horniduraren askotariko garapena, bai eta lurralde historiko bakoitzean historikoki finkatutako gastu-zoruan egiaztatutako desberdintasuna ere. Horren guztiaren ondorioz, finantza-lankidetzaren azken datuek alde esanguratsuak dituzte, eta horiek hainbat faktoreen konbinazioaren emaitza dira (lurralde historiko bakoitzean baliabide soziosanitarioen hornidura desberdina; baliabide mota bereko plazen prezio historiko desberdina, lurralde historikoaren arabera, eta, ondorioz, aldeak lurralde historiko bakoitzerako egiaztatutako gastu-zoruan, etab.).</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide soziosanitarioak finantzatzeko esparru adostu bat izatea, bi urteko indarraldia duena (2022 eta 2023), beste bi urtez luza daitekeena (2024 eta 2025). • Adostutako finantza-lankidetzaren ereduak planteatzen duen paradigma-aldaketak (konpentsazioagatiko ordainketa bertan behera uztea dakar, moduluen finantzaketan edo baliabideen plazen kostuaren banaketa parekidean oinarrituta) eta, gainera, berekin dakar Osasun Sailak (Eusko Jaurlaritza) parte hartzea Gizarte Zerbitzuen Sistemaren titulartasunekoak diren baliabide soziosanitarioen finantzaketan (baliabide horietan arreta mantentzeko <i>finkatutako gastu historikoaren</i> zoruan oinarrituta kalkulaturako lankidetzaren), baliabide soziosanitarioen finantzaketaren jarraitutasuna eta jasangarritasuna sustatze aldera. • Baliabide soziosanitarioak finantzatzeko formulen estandarizazioan eta normalizazioan aurrera egitea, horiek lurralde historikoka multzokatuta, hiru kategoria handitan oinarrituta: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzak. - EUS. - Gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonentzako baliabideak. • Konbergentzia-planteamendu bat lortzea hiru lurralde historikoetan baliabide soziosanitarioetarako historikoki existitzen diren akordioen <i>corpus</i> heterogeneorako finantzaketa-hitzarmenen formulazioan, eta baliabide mota

	<p>bakoitzera bideratutako finantza-lankidetzaren osagai ekonomikoa zehazteko aukera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitzarmen berrien edukia indarrean dagoen esparru juridikora egokitzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakora egokituta. • Lurraldearteko ekitatea sustatzeko bidean aurrera egitea, hiru lurralde historikoetan arreta soziosanitarioa emateko baliabideak mantentzeko eta sortzeko finantza-lankidetzarekin.
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera esperodun - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • Aukera: Arreta soziosanitarioaren finantzaketa eta prestazioa harmonizatzea EAEn lurraldearteko ekitatearen aldeko apustu gisa; izan ere, hitzarmen horiek sinatzeak lurralde historiko bakoitzean baliabide soziosanitarioen hornidura biztanleriarengana pixkanaka hurbiltzea sustatzen du, biztanleriaren premien arabera, eta horien finantza-lankidetzari pixkanaka parekatzea hiru lurralde historikoetan, lurraldearteko ekitatea sustatzeko formula gisa, biztanleriak egun dituen eta sortzen ari diren premia soziosanitarioei erantzuteko baliabideak mantentzeko eta sortzeko finantza-zuzkidura eta -lankidetzari dagokionez. • Aukera: Gaixotasun mental larria duten pertsonentzako baliabideak finantza-lankidetzarako hitzarmen bakar batean txertatzea Bizkaian, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

3. ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA

ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Elkarreragingarritasunaren arloak honako hau du helburutzat: informazio-sistemek eta horietaz baliatzen diren prozedurek datuak partekatzeko eta elkarri informazioa eta ezagutza helarazteko duten gaitasuna sustatu eta erraztea, eta, azken batean, arreta koordinatzen laguntzea. Hori guztia administrazio elektronikoaren eta informazioaren gizartearen garapena erraztuz.</p> <p>Elkarreragingarritasun-estrategiaren garapena lau proiektutan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Historia soziosanitario elektronikoa: praktikan, elkarreragingarritasun soziosanitarioaz hitz egin behar dugu, informazio-sistemen bilakaera errazten baitu, gizarte- eta osasun-zerbitzuetako sistemetako profesionalen landinamika koordinatuaren euskarri gisa. • Aginte-taula: datuetan oinarrituta erabakiak hartzea. • Historia Klinikorako sarbidea egoitzetan: profesionalak informazio-sisteman nonahi sartu ahal izatea, lanean ari diren lekua edozein dela ere. • Elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko esparru juridikoa eta datuen babesekoa. <p>Eremuak lotura estua du Lehen Mailako Arretako eremuarekin.</p>
4. Egoitza-zentroetatik Historia Klinikorako sarbidea izatea	
Proiektuaren egoera	Osatuta eta laguntza- eta mantentze-fasean.
Proiektuaren hasiera-data	2015
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, bere zuzendariordetzen bidez: Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza eta Informatika Zuzendariordetza.
Proiektuaren helburua(k)	Egoitza-zentroetan arreta ematen duten profesional sanitarioei historia klinikorako sarbidea ematea.
Aurrekariak	Hobetzea egoitzetan dauden pertsonen osasun-arreta jasotzeko aukera.
Lan-metodologia	<p>Egoitzetan Osabide Integra hedatzeko, honako urrats hauek egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitzak komunikazio-azpiegituren arloko zenbait ezaugarri eduki behar ditu. • Egoitzaren eta Osakidetzaren arteko hitzarmena. • Profesionalen konfidentzialtasun-dokumentua.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ekipamendu informatikoak konfiguratzeko Historia Klinikokoaren softwarean sartzeko. • Pazientearen baimen informatua. • Tresna informatikoa erabiltzeko prestakuntza eta laguntza funtzionala.
Egindako ekintzen deskribapena	Gaur egun, proiektua laguntza- eta mantentze-fasean dago. Osabide Integraren ezarpenak asistentzia-lanean eta egoitzen eta Osakidetzaren arteko koordinazioan duen eraginaren diagnostiko bat lantzen ari dira, haren erabilgarritasunak egokitzearen.
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	Proiektuaren gauzatzeko-maila neurtzeko erabiltzen den adierazle nagusia hauxe da: tresna informatikoa zenbat egoitzatan hedatu den. Gaur egun, ezaugarri jakin horiek dituzten egoitza guztietan hedatu da, eta egoitza horiekin lotutako egoitza eta eguneko zentro berriak erantzen ari dira.
Proiektuak zer aliantza dituen	Osakidetzaren eta egoitzen arteko lankidetzak-hitzarmenak. Gasteizko Udalaren egoitzen eta Osakidetzaren arteko hitzarmenaren zain.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	Proiektua gauzaturik dago. Dagoen arazoa lotuta dago, administrazio atalean (eOsabide), hain zuzen, ospitaleratzeen/alten ondoriozko aldi baterako lekualdaketetan dauden pazienteen erroldak mantentzearekin.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	Pazientearen informazio klinikorako sarbidea hobetzea; izan ere, profesionalen praktika klinikoa hobetzen du eta zuzeneko eragina du asistentziaren kalitate eta segurtasunean.
Baloratu beharreko beste alderdi batzuk: <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera espero den - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	Proiektuaren arrakastak aurrera egitea ahalbidetzen du, tresna informatikoan funtzionalitate berriak sartzeko. Alergien erregistroa gehitu da, eta, 2023rako, honako funtzionalitate hauek geratzen dira egiteke: anbulantzien eskaera, aldagai klinikoen eta web formularioen kudeatzailea, eta aurretiazko borondateen dokumenturako (ABD) sarbidea. Profesionalaren lana nonahikoa izatea da azken helburua.
5. Historia Soziosanitaria	
Proiektuaren egoera	Hedatze-fasean.
Proiektuaren hasiera-data	2021eko apirila.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, bere zuzendariordetzen bidez: Lehen Mailako Arreta Koordinatuzeko Zuzendariordetza eta Informatika Zuzendariordetza. • Osakidetzako ESIak, zerbitzuen bidez.

	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritza, Osasun eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Zerbitzuen sailen bitartez. • Foru-aldundiak, zerbitzu-arloen eta informatika-sailen bidez. • EUDEL-Udalak, oinarriko gizarte-zerbitzuen, mankomunitateen edo kuadrillen bidez.
Proiektuaren helburua(k)	<p>Zerbitzu sozial eta sanitarioetako informazio-sistemen bilakaera sustatzea, bi ikuspegi osagarritan oinarrituta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herritarrek, administrazio-prozedurak izapidetzeko, Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubidea garatzea. • Egungo informazio-sistemak egokitzea, gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemetako profesionalen baterako lan-dinamika koordinatuaren euskarri gisa.
Aurrekariak	<p><i>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak 2013-2016</i> zehaztu zirenetik, eremu eta maila asistentzietako profesional ugari parte hartu dute proiektua garatzeko prozesuan, baina garapen horrek intentsitate-maila ezberdinak izan ditu halere, eta ikuspegi-aldaketa batzuk egin behar izan dira, halaber, jatorrizko egitasmoan.</p> <p>Egungo estrategian, profesionalen esperientziaren gaineko ikaskuntzak lehenetsi dira, eta elkarreragingarritasunaren alde egin da, erakunde bakoitzaren autonomiari, baita informazio-sistemei dagokienez ere, zehatz-mehatz erantzuteko.</p>
Lan-metodologia	<ul style="list-style-type: none"> • I. fasea: Erabilera-kasua identifikatzea⁶. • II. fasea: Informazio-bilerak. • III. fasea: Datuak trukatzeko programak aztertzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Eredu funtzionala. ○ Arkitektura teknologikoa. ○ Edukien estandarizazioa. • IV. fasea: Pilotajea eta neurketa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Erakunde bakoitzeko zuzendaritzei proposamena egitea. ○ Proiektu pilotua zehaztea. ○ Ebaluazio-adierazleak zehaztea. ○ Proiektu pilotua gauzatzea. ○ Etengabeko neurketa. • V. fasea: Emaitzak ebaluatzea. • VI. fasea. Eskalabilitatea gauzatzea.

⁶ Software-ingeniaritzaren «erabilera-kasua» terminoa hartu da; hau da, sistema baten eta haren zerbitzuren bat erabiltzen duen norbaiten edo zerbaiten arteko interakzioen sekuentzia. Erabilera-kasua, praktikan, sistema baten portaera zehazteko tresna bat da, eta [*Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategiaren \(2021-2024\)*](#) ikuspegi pragmatikoaren erreferente metodologiko argi bat. Erabilera-kasuak proiektu pilotu bat gauzatzea hartzen du barnean, eta proiektu pilotu hori ebaluatu beharko da eskalagarritasuna duen jardunbide egoki bat identifikatzeko.

Egindako ekintzen deskribapena

- Zeharka eta etengabe, baldintzak sortzen jarraitu da inplikaturako erakundeen ordezkagarritasunean eta konpromisoan, lidergo korporatiboaz gain.
- Estrategiaren helburuekin bat etorriz, hiru baldintza hauek betetzen zituzten erabilera-kasuak identifikatu dira: koordinazioa artikulatzen duen protokolo edo arau bat egotea, datuak eskuz trukitzea eta EAE osorako eskalabilitatea izatea.
- 2022. urte osoan 3 erabilera-kasurekin lan egin da:
 - Arreta Goiztiarra.
 - Telelaguntza-eskaera.
 - Arreta integratua Gernikako KIUan, gizarte-zerbitzuekin.
- Hiru erabilera-kasuetan, datu-trukea aztertzeko III. fasea osatu da. Informatika-zerbitzuekin hitz egiteko bideak ezarri dira eta erakunde parte-hartzaile bakoitzaren informazio-sistemak egokitzeko zehaztapen funtzionalak eman dira. Softwarearen garapena 2023aren hasieran hasia aurreikusten da, horrela pilotajearen IV. faseari ekin ahal izateko.
- 2022ko azken hiruhilekoan aurrera egin da erabilera-kasuen emaitzen ebaluazioarekin (V. fasea). Aurretiazko proposamen bat da, erabilera-kasu bakoitzaren talde eragilearekin erkatzen hasi dena, eta 2023ko lehen hiruhilekoan zehar landuko da.
- 2022an, mendekotasuna baloratzeko osasun-txostenaren tresnaren hedapenari jarraipena eman zaio, baina zailtasunak izan dira software batekin; izan ere, ez du koherentziaz eboluzionatu historia kliniko elektronikorekin, eta horrek arazoak sortu ditu erakunde sanitarioek tresna ezartzeko orduan. Zehazki, hura diseinatzeak ahalegin handia eskatzen zuen administrazio-eremuan. Hori 2022ko lehen seihilekoaren amaieran ebatzi da, eta urteko azken hiruhilekoan Bizkaiak Deustuko eta San Ignazioko LMAUak finkatu ditu. Gipuzkoaren kasuan, Bidasoa ESIan hedatu gabe dago. Azkenik, Arabako Foru Aldundiak informazio-sistema bat du, baina ez da elkarrengarria; beraz, ez da zabaldu, eta ez du plangintzarik batere. Egoera hori konpondu egin behar da, AFA ez baita kapaz garatuko diren elkarrengarritasuneko erabilera-kasuak artatzeko.
- 2022an, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailen akordioarekin, EJI Eren bitartez historia soziosanitaria aztertzeko, diseinatze eta garatzeko zerbitzua kontratatze preskripzio teknikoaren agiriak zehaztu ziren. Proiektuaren adjudikazioa 2023ko lehen hiruhilekorako aurreikusten da. Proiektuak 1,2M €-ko kostua izango du eta 2 urteko iraupena. Helburua da Eusko Jaurlaritzari elkarrengarritasun soziosanitariarako

	<p>azpiegitura ematea, Eusko Jaurlaritzaren barruan, arreta soziosanitarioan esku hartzen duten EAEko gainerako administrazioekin batera. Azpiegitura horiei esker, elkarreragingarritasun-erabileraren edozein kasu ezar daiteke eskalan.</p>
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 43 bilera, aktarekin dokumentatuta. • 4 fitxa, erabilera-kasu bakoitzeko bat. • 4 proiektu-dokumentu, bat erabilera-kasu bakoitzeko. • 4 eredu funtzional, lotutako datuak trukatzeko diagramekin, erabilera-kasuko bana. • 1 preskripzio funtzionalen dokumentu, Eusko Jaurlaritzaren elkarreragingarritasun soziosanitarioko azpiegiturak aztertu, diseinatu eta garatzeko zerbitzua EJIeri kontratatzeko. • 1 erabilera-kasuak ebaluatzeko proposamen (erabilera-kasu bakoitzaren talde eragilearen kontrastea falta da).
<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritza: Osasun Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. • Osakidetza Zuzendaritza Nagusia (Lehen Mailako Arretako Zuzendariordetza). • Foru-aldundiak • EUDEL • Proiektuak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) finantzaketa du, 22. osagaiaren barruan (Zainketen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze politikak indartzea), C22.I2 inbertsio-lerroan. Iraupen luzeko laguntza- eta zaintza-plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak SEM funtsei aurkeztutako eta Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmenaren jasotako historia soziosanitario elektronikoaren 11. proiektuari erantzuten dio.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak erakundeen konfiantza berreskuratzea lortu du, beren autonomia errespetatuta sentitzen baitute ikuspegi horrekin. • Elkarreragingarritasuneranzko ikuspegi horretan erakunde bakoitzaren informazio-sistemak dira abiapuntua, horien bitartez egiten baita datu-trukea. • Erregistroak bitan egitea eragozten da, eta profesionalen balioa ematen zaie. • Elkarreragingarritasunak administrazio guztien konpromisoa eskatzen du; izan ere, maila batek huts egiten badu, informazio-trukea ez da osatzen. • Erabilera-kasuen metodologiak aukera ematen du behar zehatzak moldatzeko, baina aurrerapen txikia da hasierako

	fasean, harik eta informazio-sistemak egokitu eta edozein motatako elkarreraginak ezartzea ahalbidetuko duten irtenbideak eskaini arte.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzenean, lortu beharreko onurak hauek dira: informazio-trukea modu zehatz, beharrezko eta eguneratua erraztea. Eta, zeharka, lan koordinatua erraztu beharko luke horrek, eta esku-hartze plan partekatua ekarri amaieran. • Nabarmentzekoa da, halaber, informazio-trukeak informazioaren erregistro egituratua eskatzen duela, eta horrek aukera ematen du informazioa prozesatzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko ezagutza lortzeko.
Baloratu beharreko beste alderdi batzuk: <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera espero den - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	Gizarte-eremuko informazio-sistemen aniztasunak aurrerapena moteltzen du; era berean, horretan laguntzen duten elementuak eta adostasunak bilatzera behartzen du horrek, eta proiektuaren benetako indarrak bihurtzen dira azkenean elementu horiek.
6. Aginte-taula: datuetan oinarritutako erabakiak hartzea	
Proiektuaren egoera	Hasi gabe.
7. Elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretua	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasiera-data	2022ko maiatza
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. • Eusko Jaurlaritzako Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza.
Proiektuaren helburua(k)	Proiektuaren helburu orokorra da EAEko erakundearen artean informazioa eta ezagutza soziosanitarioa trukatzeko esparru arautzailea zehaztea.
Aurrekariak	<p>EAEko arreta soziosanitarioaren ereduaren helburua da pertsonak jasotzen duten zaintzan arreta integratua eskaintzea, asistentziaren ikuspegia oinarri hartuta, baina, betiere, egitura instituzionalen autonomia organikoa, informazio-sistemak eta eskumenak errespetatuz. Horretarako, zerbitzu sanitario eta sozialen koordinazioari dagokionez, arreta integratua oinarritutako eredu bat behar da, baina integrazio organikorik gabe. Beraz, bi sistema koordinatuta oinarritutako ikuspegia da.</p> <p>Erakunde-, eskumen-, antolamendu-, funtzio- eta teknologia-komplexutasuna nagusi den esparru horretan, historia soziosanitarioa elkarreragingarritasun-proiektu gisa kontzeptualizatzen da, datuak partekatzeko eta informazio-</p>

	<p>sistemen artean informazioa eta ezagutza trukatzeko; betiere, guztien helburu komuna dela behar duten pertsonen artean koordinatua ematea.</p> <p>Horrek esan nahi du EAEn elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretua adostu, landu eta onartu behar dela, erakundeen artean trukatzeko den informazio eta ezagutza soziosanitarioa arautzeko esparru gisa, bai eta esparru soziosanitarioko segurtasun-politikaren parte diren segurtasun-prozedurak arautzeko ere.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Proiektuari lotutako premiak hiru fasetan egituratzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • I. fasea: Espainiako eta Europako eremu soziosanitarioan garatutako elkarreragingarritasun-esparru orokorren azterketa. • II. fasea: EAEn elkarreragingarritasuna garatzeko dekretu-proiektuaren oinarriak definitzea. Elkarreragingarritasun soziosanitarioko eredu osatuko duten lege-, teknika- eta funtzio-errekerimenduen katalogoa definituko da. Errekerimendu horiek oinarri beharrezkoa izango dira EAEn elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretu-proiektuan. • III. fasea: Datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren eremuko aholkularitza eta laguntza tekniko-juridikoa.
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako eta Osasun sailen lankidetzarekin, sailarteko lantalde bat sortu da, Gizarte Zerbitzuen eta Arreta Soziosanitarioko zuzendaritzetako kideek osatua, Osasun Saileko aholkulari juridiko baten laguntzarekin. • Esparru soziosanitarioan datu-babeseko araudia betetzera bideratutako laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazio-gastua justifikatzeko memoria egitea. • Preskripzio teknikoen agiria egitea laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzeke eta eremu soziosanitarioan datuak babesteko araudia betetzeko. • Eremu soziosanitarioan datu-babeseko araudia betetzeko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratua lizitatzea eta adjudikatzea.
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sailarteko taldearen baterako 4 lan-saio. • 1 laguntza teknikoa kontratatzeke gastua justifikatzeko memoria. • 1 laguntza teknikoa kontratatzeke preskripzio teknikoen agiri.

<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzak: Osasun Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. • Proiektuak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) finantzaketa du, 22. osagaiaren barruan (Zaintzen ekonomiarako talka-plana eta gizareratze politikak indartzea), C22.I2 inbertsio-lerroan. Iraupen luzeko laguntza- eta zaintza-plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak SEM funtsei aurkeztutako eta Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren arteko lankidetzaren hitzarmenean jasotako historia soziosanitario elektronikoen 11. proiektuari erantzuten dio.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrerapen nagusia da arreta soziosanitarioan inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako sailen arteko adostasuna, informazioa eta ezagutza soziosanitarioa trukatzeko esparru arautzaile bat ezartzearen premia eta egokitasunari buruz, eta hori zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agiri batean islatzea.
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren onurak honela zehazten dira zuzenean: 1) Arlo soziosanitarioko elkarreragingarritasuneko arau-esparruak aztertzea eta aplikazio-gomendioa; eta 2) EAEn elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko esparru arautzailearen lanketa-oinarriak. • Trantsizio-aldian, horri buruzko aholkularitza tekniko-juridikoa izango da.
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera espero den - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua gauzatzeko epeari dagokionez, I. eta II. faseetarako, 2023a ezarri da, eta III. faserako, urtebeteko luzapena aurreikusten da. • Ez dago antzeko esperientziarik, eta, beraz, bide berriak irekitzea da kontua. • Ondorioztatu daitezke ez dela dekretu bat behar, baina bai, ordea, gomendio multzo bat, egungo lege-esparrua aplikatu eta segurtasun juridikoko agertoki bat sortu ahal izateko.

4. PREBENTZIO SOZIOSANITARIOA

PREBENTZIO SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Prebentzio Soziosanitarioak autonomia eta bizitza independentea sustatzea eta osasun-arloko desberdintasunak murriztea xede duten politikak eta ekimenak koordinatzeko proposamena hartzen du barnean, arrisku soziosanitarioko faktoreen agerpenari eutsi, hura arindu eta/edo atzeratzea xede duen ikuspegi batekin.</p> <p>Prebentzio soziosanitarioaren hedapena bi proiektutan zehazten da:</p> <p>1.1. Prebentzio soziosanitarioko esparru koordinatu bat zehaztea.</p> <p>1.2. Arrisku soziosanitarioa detektatzeko tresna.</p>
8. Prebentzio Soziosanitarioko esparru koordinatua zehaztea	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasiera-data	2022ko urtarrila.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea.
Proiektuaren helburuak	<p>Arrisku soziosanitarioko faktoreak hautematera, kontrolatzera, arintzera edo atzeratzera bideratutako politikak eta jarduketak koordinatzea; faktore horien artean daude osasunaren baldintzatzaile sozial eta ekonomikoak, osasunean desparekotasun sozial gisa agertzen direnak. Horretarako, arreta soziosanitarioko beharrei erantzun biopsikosoziala emateko esparru bat diseinatzea proposatzen da, pertsonen autonomia eta bizimodu independentea sustatzera bideratutako politikak eta ekimenak koordinatuz.</p>
Aurrekariak	<p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehenetasun Estrategikoek (2017-2020)</u> 4. lehenetasunaren garapena bideratu zuten, prebentzio soziosanitarioari eta herritarren parte-hartzeari heltzeko.</p> <p>Bere formulazioan, prebentzio soziosanitarioa gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemen jasangarritasunerako elementutzat hartzen da, arreta soziosanitarioko eskaerak agertzea atzeratzen edo saihesten duelako. Prebentzio soziosanitarioak biztanleriaren ikuspegia arrisku-profilaren banakako doikuntzarekin uztartzeari erantzuten dio, eta helburu horrekin, <u>lehenetasun estrategikoetan</u> bi proiektutan oinarrituta antolatzea planteatu zen: EAEn profesional soziosanitarioek tratu txarrak detektatzeko tresna bat hedatzea (ekimena, era berean,</p>

	<p><i>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak (2013-2016)</i> dator) eta prebentzio soziosanitarioko eredu bat garatzea.</p> <p><i>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoen jarduera- eta ebaluazio-memoriak (2017-2020)</i> agerian utzi zuen, EAEn tratatu txarrak detektatzeko tresnarekin lortutako hedapenak ez bezala, finantzaketa espezifikorik ezak zaildu egin zuela prebentzio soziosanitarioko eredu konprometitua prestatzea.</p>
Lan-metodologia	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza gonbidatu duten Eusko Jaurlaritzako sailarteko foroetan parte hartzea eta/edo koordinazio-lanak egitea.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> • 2013-2020 Osasun Planaren ebaluazioan parte hartzea. • 2023-2028 Euskadiko Osasun Planaren osaketan parte hartzea, eta lantalde hauek koordinatzea: 3. taldea (bizi osoko ikuspegia duen zahartzea lortzea) eta 4. taldea (jasangarritasuna eta bikaintasuna lortzea EAEko asistentzia-sistema sanitario eta soziosanitarioen kalitateari, gizatiartzeari eta segurtasunari dagokienez). • <i>Euskadi Lagun</i>koian (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila) parte hartzea, adinekoek eta, oro har, herritarrek EAEko auzoak eta inguruak hobetzen parte har dezaten sustatzeko, biztanleria zahartu ahala. • <i>Pertsona Nagusiekiko Gobernantzarako Euskal Estrategian (2019-2022)</i> parte hartzea. • <i>Agenda Nagusi 2022</i> ekimenean parte hartzea. • <i>Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren (2017-2021)</i> ebaluazioan parte hartzea. • <i>Gizarteratzeko V. Euskal Planean (2022-2025)</i> parte hartzea. • <i>Etixerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategian (2018-2011)</i> parte hartzea. • <i>Osasun Mentaleko Euskal Estrategia (2023-2028)</i> egiten parte hartzea. • <i>Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia (2019)</i> parte hartzea. • <i>Euskadiko Lehen Mailako Arretarako Estrategian</i> parte hartzea.
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	Plan, estrategia eta aholku horien aktetan jasota dago Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren parte-hartzea.
Proiektuak zer aliantza dituen	Eusko Jaurlaritzako Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak parte hartzen duen sailarteko lankidetzak harremanak eta konpromisoak garatzen laguntzen du, EAEko arreta soziosanitarioa, oro har, eta arrisku soziosanitarioaren

	prebentzioa, bereziki, hobetuko duten gobernu-proiektuak egiteko.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	Gobernu-eremuen arteko sinergiak sortzeari eta aprobetxatzeari esker, arrisku soziosanitarioaren kontzeptuaren ezagutza eta jarduteko beharra bultzatzen dira, esparru koordinatu, diziplina anitzeko, sailarteko eta sistematiko batetik, hura prebenitze aldera.
Baloratu beharreko beste alderdi batzuk: <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera esperodun - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza sortzeak beste gobernu-eremu batzuetatik (eta beste erakunde eta entitate batzuetatik) eremu soziosanitarioa ikusarazten laguntzen du, eta, horri esker, zuzendaritzak arrisku soziosanitarioaren prebentzian eragin dezaketen politikak eta ekimenak formulatzen lagun dezake.
9. Arrisku Soziosanitarioa zehazteko tresna	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasieradata	2022ko urtarrila.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea.
Proiektuaren helburuak	Arrisku soziosanitarioko faktoreak hautematea ahalbidetuko duen tresna bat eraikitzea, faktore iragarle jakin batzuen definiziotik eta mailakatzetik abiatuta.
Aurrekariak	<p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehenetasun Estrategikoek (2017-2020)</u> 4. lehenetasunaren garapena bideratu zuten, prebentzio soziosanitarioari eta herritarren parte-hartzeari heltzeko.</p> <p>Bere formulazioan, prebentzio soziosanitarioa gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemen jasangarritasunerako elementutzat hartzen da, arreta soziosanitarioko eskaerak agertzea atzeratzen edo saihesten duelako. Prebentzio soziosanitarioak biztanleriaren ikuspegia arrisku-profilaren banakako doikuntzarekin uztartzeari erantzuten dio, eta helburu horrekin, <u>lehenetasun estrategikoetan</u> bi proiektutan oinarrituta antolatzea planteatu zen: EAEn profesional soziosanitarioek tratu txarrak detektatzeko tresna bat hedatzea (ekimena, era berean, <u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak (2013-2016)</u> dator) eta prebentzio soziosanitarioko eredu bat garatzea.</p>
Lan-metodologia	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako iturrien bibliografia berrikustea, arreta soziosanitarioa eman behar izatea eragin dezaketen

	<p>arrisku-faktoreei dagokienez, eta arrisku sozial edo sanitarioko egoerak neurtzeko eskalak berrikusteari dagokienez.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa-prozesua egitea eta proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamen bat egitea, hauskortasun-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta (mendekotasunaren aurreko egoera gisa).
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako iturrien bibliografia berrikustea, arrisku-faktoreei eta arrisku sozial edo sanitarioko egoerak neurtzeko eskalei dagokienez. • Bibliografiaren berrikuspenaren emaitzen inguruko hausnarketa-prozesua egitea eta ondorioak ateratzea. • Proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamen bat egitea, hauskortasun-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta (mendekotasunaren aurreko egoera gisa).
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako iturrien bibliografia berrikustea, arrisku-faktoreei eta arrisku sozial edo sanitarioko egoerak neurtzeko eskalei dagokienez. • Bibliografiaren berrikuspenaren emaitzei buruzko hausnarketa-saioa egitea eta ondorioak ateratzea. • Proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamena, hauskortasun-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta (mendekotasunaren aurreko egoera gisa).
Proiektuak zer aliantza dituen	<p>Ekintza hori Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategian (III. ardatza, 22. jarduketa) dago jasota, Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak (Eusko Jauraritza) sustatua.</p>
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	<p>Kontsultatutako bibliografiaren azterketatik eta egindako hausnarketatik ondorioztatzen denez, ez da bidezkoa arrisku soziosanitarioaren definizio unibokoa kontzeptu neurgarri gisa jorratzea, aurretiazko fase beharrezkoa baita tresna iragarle bati buruz hitz egiteko.</p> <p>Zehazki, proiektuak aurrera egiteko oztopo hauek identifikatzen dira, jatorrizko ikuskeraren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • «Arreta soziosanitarioaren premiaren» emaitza-aldagaia aipatuz gero, badirudi arreta soziosanitarioaren premia kontzeptu bakarra, definigarria eta neurgarria dela. • Premia soziosanitarioak hauteman direlako arreta-eskariarekin identifikatzen diren kolektiboak heterogeneoak dira. Era berean, egiaztatu da egoera horietako bakoitza

	<p>pairatzea eragiten duten inguruabarrak (arriku-faktoreak) askotarikoak direla.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zailtasun horiek gaintitze aldera, proiektuari beste ikuspegi bat ematea proposatzen da, hauskortasun-egoerak hautemateko arriku-faktoreak identifikatzera bideratua (mendetasunaren aurreko egoera gisa). • Hala ere, argitaratutako hauskortasunaren definizioek baldintza indibidualak soilik aipatzen dituzte, eta, funtsean, morbiditate- eta funtzio-baldintzak, eta ez dira dimentsio soziala eta biztanleria-ikuspegia barne hartzen.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	Arriku-faktoreak identifikatzea, hauskortasun-egoeren prebentzioa eta mendetasun-egoerak atzeratuko edo saihestuko dituen esku-hartze goiztiarra ahalbidetzeko.
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera esperodena - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p>Proiektuaren berrorientazioak honako eremu hauek hartuko lituzke barne:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Prebentzio soziosanitarioko lan-ildoei buruzko egoeraren diagnostikoa: biztanleria-ikuspegia eta banakako perspektiba. 2. Arriku-faktoreen eta beharizan soziosanitarioen kudeaketako jardunbide egokiak identifikatzea. 3. Prebentzio soziosanitariorako funtsezkoak diren eragileak identifikatzea. 4. Arlo soziosanitarioko funtzionaltasuna eta hauskortasuna ebaluatzeko ekimenekin bat etortzea.

5. ARRETA SOZIOSANITARIOA

ARRETA SOZIOSANITARIOA	
<p>Arloaren helburua</p>	<p>Arreta soziosanitarioaren hedapenak honako helburu hau du: arreta soziosanitarioko taldeak osatzen dituzten profesionalen koordinazio soziosanitarioa sustatzea eta diziplina anitzeko esku-hartzeetan oinarritutako landinamika partekatuak bultzatzea, eta horien bitartez, azken finean, baterako zaintza-planak ezarri ahal izatea, pertsona esku-hartzeen erdigunean jartzeko eta asistentzia-jarraitutasuna eta bere bizi-proiektuarekiko errespetua bermatzeko.</p> <p>Planteamendu horretatik abiatuta, arlo honen garapenak loturak ditu sistemen arteko elkarreragingarritasuna, gobernantza soziosanitarioa edo prebentzio soziosanitarioa biztanleriaren ikuspegitik sustatzea xede duten beste arlo estrategiko batzuekin.</p> <p>Arreta soziosanitarioaren sustapena hiru proiektu hauen bitartez egiten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren hedapena, hainbat ekintza barnean jasota: erreferente soziosanitarioen mapa bat eraikitzea; gida kontzeptual soziosanitario bat (<i>tool kit</i> soziosanitarioa) egitea, koordinazio soziosanitarioko tresnen –batzordeen, protokoloen, prozeduren eta abarren– baliagarritasunaren eta finkatze-mailaren diagnostikoan oinarrituta, edo, proiektu pilotuak garatzea arreta soziosanitarioko jardunbide egokiak bultzatzeko, besteak beste. • Arreta soziosanitarioko xede-kolektiboetako jarduketak. • Arreta goiztiarra eta hezkuntzako eremu soziosanitarioaren garapena.
<p>10. Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren hedapena</p>	
<p>Proiektuaren egoera</p>	<p>Aribidean/hedatzen.</p>
<p>Proiektuaren hasiera-data</p>	<p>Erreferente soziosanitarioen mapa eraikitzeari dagokionez: 2021eko ekaina.</p> <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoari dagokionez: 2021eko azaroa.</p> <p>Proiektu pilotuei dagokienez, kontsultatu proiektu bakoitzaren hasiera-data dagokion fitxa metodologikoan (ikus eranskina).</p>

<p>Lantaldea</p>	<p>Erreferente soziosanitarioen mapa eraikitzeari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lurraldeetako koordinatzaile soziosanitarioak. • EAEko Udalen Elkartea (EUDEL). • Lurralde historiko bakoitzeko hiriburuetako hiru udaletako zuzendaritza tekniko eta politikoak. • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasunaren arloko lurraldeetako koordinatzaile soziosanitarioak. • Hiru lurralde historikoetako erakunde sanitario integratuetako, hiru lurralde historikoetako osasun mentaleko sareetako eta Gorlizko eta Santa Marinako ospitaleetako medikuntzako, erizaintzako, asistentzia-integratioko eta gerentzietako zuzendaritzak. • Hiru lurralde historikoetako ESIen eta Osasun Mentaleko Sareen osasun-eremuko erreferente soziosanitarioak. • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. <p>Proiektu pilotuei dagokienez, hasitako proiektuetan askotariko erakundeak aritzen dira. Proiektu bakoitzean parte hartzen duten erakunde eta eragileen xehetasunak zehatz-mehatz jasotzen dira proiektu-fitxa bakoitzean (ikus eranskina).</p>
<p>Proiektuaren helburua(k)</p>	<p>Erreferente soziosanitarioen mapa eraikitzeari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inplikaturako eremu, maila eta erakundeetako erreferentziako profesionalen egitura ordenatua eraikitzea. • Arreta soziosanitarioko taldeen lana erraztea (zainketen koordinazioari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez). • Gobernantza soziosanitarioa hedatzea erreferente soziosanitarioaren figurari dagokienez. <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erakundeetan indarrean dauden koordinazio soziosanitarioko tresnen (batzorde soziosanitarioak, protokoloak eta koordinazio-prozedurak) egoeraren diagnostikoa egitea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Tresna horien erabilgarritasun- eta egokitasun-maila ebaluatzea, bai eta indarrean dagoen araudiari (governantza soziosanitarioari buruzko dekretua) egokitzen zaizkion ere. • Diagnostiko-txosten bat egitea, indarrak eta hobetu beharreko eremuak identifikatzeko, eta gomendio multzo bat egitea, identifikatutako alderdietatik abiatuta. • Bigarren fasean, dokumentu bat idaztea, EAEko arreta soziosanitarioaren funtsezko elementuen gida kontzeptual gisa. <p>Proiektu pilotuei dagokienez, hasitako proiektuetan askotariko erakundeak aritzen dira. Proiektu bakoitzean parte hartzen duten erakunde eta eragileen xehetasunak zehatz-mehatz jasotzen dira proiektu-fitxa bakoitzean (ikus eranskina).</p>
<p>Aurrekariak</p>	<p>Erreferenteen mapa garatu aurretik, hainbat ekintza egin dira aurreko legegintzaldietan, pilotajerako profesional erreferenteak ezartzeko eta, ondoren, InterRAI-CA (2015-2020) balorazio soziosanitarioko tresna hedatzeko. Era berean, erreferentearen figura 2019an onartutako gobernantza ereduan jasotzen da, eta funtsezko figura izan da COVID-19aren pandemia kudeatzeko; testuinguru horretan gehitu da, gainera, hurbiltasuneko erreferentearen figura.</p> <p>Gida edo <i>Tool Kit</i> soziosanitarioa garatzeko erabiliko den diagnostiko-txostenaren aurretik beste txosten bat egin zen 2016an, eta hori pixka bat eguneratu zen 2017an; txosten horrek orduan indarrean zeuden protokoloen zerrenda jaso zuen. Txosten horrek dokumentuen funtsa eta forma aztertu zituen, eta hobetzeko arlo argiak zehaztu. Azterlan hori egiteko informazioa <i>ad hoc</i> egindako galde sorta baten bidez lortu zen; ESIn zuzendaritzetara bidali zen galde sorta hori. Oraingo honetan, informazio hori eguneratzea da kontua; hau da, dokumentu horietan izandako aldaketak zehaztea, hobetzeko arloak zuzentzea, protokolo berriak zehaztea, koordinazio-protokoloak eta/edo -prozedurak berriz sailkatzea, eta zehaztea azken horiek baliagarriak eta egokiak diren hainbat eremutatik emandako koordinazioa protokolizatzeko tresna gisa. Gainera, batzorde soziosanitarioen azterketa gehitu da.</p> <p>Proiektu pilotuei dagokienez, proiektu pilotu bakoitzak helburu jakin bat lortu nahi duen arren, honako hau da</p>

	<p>ikuspegi horren helburu orokorra: erakunde sanitario guztiek, eskualdeko gizarte-zerbitzuekin batera, proiektu piloturen bat garatzea, dagozkien jardun-eremuak eta -mailak hobeto ezagutzeko, koordinazio soziosanitarioa hobetzeko eta beste ekosistema soziosanitario batzuetara eskalatu daitezkeen jardunbide egokiak identifikatzeko.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Erreferente Soziosanitarioen Mapa garatzen laguntzeko zehaztutako metodologiak honako hauek izan ditu ardatz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gidaren proposamen teknikoa egitea. • Lehen mailako arreta soziosanitarioari zuzendutako jardunaldi profesionala antolatzea (Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa), gobernantza soziosanitarioa sustatzera bideratua, bereziki, erreferente soziosanitarioaren figura (funtzioak eta eskumenak EAE osoan hedatzea), eta EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gida aurkeztea. <p>Diagnostiko-txostena egiteko, honako tresna hauek zehaztu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bi norabideko komunikazioa organizazioetako erreferente soziosanitarioekin, koordinazio soziosanitarioiko protokoloei eta prozedurei buruzko informazio egokia emateko, argitzeko eta/edo erkatzeko. • Koordinazio soziosanitarioiko protokoloen eta prozeduren azterketa dokumentala (2017-2022). <p>Proiektu pilotu soziosanitarioei dagokienez, teknika hauek erabili dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esku hartzen duten erakunde sozial eta sanitarioetako zuzendaritzekin eta gerentziekin bilera teknikoak egitea. • Material teknikoak egokiak prestatzea: aurkezpenak eta bileren aktak. • Fitxa metodologikoa, pilotu bakoitzaren kasuan eskatu behar diren eremuekin (ikus eranskina).
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<p>Erreferente Soziosanitarioen Mapa garatzen laguntzeko, 2022an garatutako ekintzek helburu hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gidaren proposamen teknikoa egitea. • Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa egiteko edukien programa eta edukiak prestatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa egitea 2022ko apirilaren 26an, lehen mailako arreta soziosanitarioari zuzendutako eta gobernantza soziosanitarioa sustatzera bideratutako jardunaldi profesional gisa, zehazki, erreferente soziosanitarioaren figura sustatzeko (funtzioak eta eskumenak EAE osoan hedatzea), eta EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gida aurkeztea. • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gida prestatu, maketatu, itzuli, formatu elebidunean editatu eta argitaratzea. • Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren erronkak eta ikuspegi berriak tailerreko ondorioen dokumentua prestatzea, maketatzea, itzultzea, formatu elebidunean editatzea eta argitaratzea. Erreferentzia soziosanitarioaren figura, Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketari (2022) dagokiona, Arreta Soziosanitarioaren Atarian. <p>Diagnostiko-txostenari dagokionez, 2022an garatutako ekintzak honako alderdi hauetan zentratzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2017tik martxan dauden protokolo soziosanitarioen zerrenda berrikustea, EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak 2016 eta 2017 urteen artean garatutako azterlana erreferentziazat hartuta. • Atzera begirako azterketa egitea, protokolo soziosanitarioek azken bost urteetan (2017-2022) izan duten bilakaera alderatzeko. • Protokolo soziosanitarioen sailkapena egitea, 2020an ezarritako formulazio berrian oinarrituta, esparru soziosanitarioko protokoloen edo koordinazio soziosanitarioko prozeduren arabera. • Lurralde eta eskualde bakoitzeko koordinazio soziosanitarioko tresnen egoerari buruzko diagnostiko-txostena prestatzea, analisia lurralde historikoaren eta erakunde sanitario integratuen arabera berezita, eta gomendioak egitea identifikatutako indarretatik eta hobekuntza-eremuetatik abiatuta. <p>Pilotuei dagokienez, ekintzak erantsitako informazioan jasotzen dira.</p>
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Aldi horretan, Erreferente Soziosanitarioen Mapa hedatzearen inguruan egindako jarduera bat dator adierazle hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gidaren proposamen teknikoa.

- [Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa](#) egiteko [edukien programa](#).
- [Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketaren](#) edukiak.
- Talde-dinamika garatzeko proposamen metodologikoa.
- Deialdian parte hartzeko gonbidapenak bidaltzea EAEko 100 erreferente soziosanitario baino gehiagori eta Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioko arduradunei.
- [Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa](#) garatzeko alderdi logistikoak antolatzea.
- [Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketa](#) egitea 2022ko apirilaren 26an
- [EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gidaren](#) maketazioa, itzulpena eta edizio elebiduna.
- [EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gida](#) argitaratzea Arreta Soziosanitarioaren Atarian.
- [Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren erronkak eta ikuspegi berriak tailerreko ondorioen dokumentuaren](#) maketazioa, itzulpena eta edizio elebiduna. [Erreferentzia soziosanitarioaren figura, Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketari \(2022\)](#) dagokiona, Arreta Soziosanitarioaren Atarian.
- [Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren erronkak eta ikuspegi berriak tailerreko ondorioen dokumentua](#) argitaratzea. [Erreferentzia soziosanitarioaren figura, Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketari \(2022\)](#) dagokiona, Arreta Soziosanitarioaren Atarian.

Halaber, 2022an [koordinazio soziosanitarioko tresnen azterketa diagnostikoa](#) osatu zen:

- 2017tik martxan dauden protokolo soziosanitarioen zerrenda berrikustea, EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak 2016 eta 2017 urteen artean garatutako azterlana erreferentziatzat hartuta.
- Atzera begirako azterketa, protokolo soziosanitarioek azken bost urteetan (2017-2022) izan duten bilakaera alderatzeko.
- Protokolo soziosanitarioen sailkapena, 2020an ezarritako formulazio berrian oinarrituta, esparru soziosanitarioko protokoloen edo koordinazio soziosanitarioko prozeduren arabera.
- [Lurralde eta eskualde bakoitzeko koordinazio soziosanitarioko tresnen egoerari buruzko diagnostiko-txostena](#), analisia lurralde historikoaren eta erakunde sanitario integratuen arabera bereizita,

	<p>eta gomendioak egitea identifikatutako indarretatik eta hobekuntza-eremuetatik abiatuta.</p> <p>Proiektu pilotuen jarduera-adierazleen xehetasunak eranskineko informazioan jasotzen dira.</p>
<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<p>Erreferentziako profesionalen egitura ordenatu bat sortzea xede duen proiektua Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa bultzatzeko Estrategiaren ekintzetako bat da, eta, horrenbestez, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eta hura osatzen duten erakundeen onspena du. Meso mailan, honako hauek babesten dute proiektua: hiru lurralde historikoetako lurraldeko koordinazio soziosanitarioak, EUDELeK eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udaletako gizarte-zerbitzuetako zuzendaritzek.</p> <p>Diagnostiko-txostenari dagokionez, Estrategiaren ekintzetako bat da, halaber, eta, horregatik, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eta hura osatzen duten erakundeen onspena ere badu. Meso-mailan, honako hauek babesten dute proiektua: hiru lurralde historikoetako lurraldeko koordinazio soziosanitarioak eta Osakidetzako zuzendaritza eta gerentzia medikoen.</p> <p>Proiektu pilotuen kasuan, zeinek bere aliantzak egin ditu, eta haiek abian jarri, lortu nahi zituen helburuen arabera.</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Erreferente soziosanitarioaren figura Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuan jasota eta zehaztuta dago. Horrek dakarren lege-babesak izugarri errazten du hura erakundeetan hedatzea. Kuantitatiboki, horrek estaldura-tasa handiak ekarri ditu: Arabak % 100eko tasa du; hau da, izendatutako erreferente soziosanitarioak aski dira eremu sozial eta sanitarioko erreferente soziosanitarioen mapari erantzuteko. Bizkaian tasa hori % 76koa da, eta Gipuzkoan, % 41ekoa.</p> <p>Hala ere, beste alderdi batzuek zaildu egiten dute proiektuaren garapena; besteak beste: arlo sozialean erreferentearen figurak duen gehiegizko atomizazioa; figura horrek erakundeetan lidergo/ahalduntzerik ez izatea, edo eremu jakin batzuetako gizarte-zerbitzuek erreferenterik ez izendatzea (horrek proiektuaren garapena arriskuan jarri ez ezik, koordinazio soziosanitarioa ere zailduko luke).</p>

Koordinazio soziosanitarioko tresnen azterketari dagokionez (batzordeak, protokoloak, prozedurak, etab.), erakunde batzuek emandako informaziorik eza nabarmentzen da, eta horrek tresna batzuek aztertzea eragozten du. Informazioa ez izateak, kasu batzuetan, dokumentu estrategikoen azken bertsioak ez izatea dakar, eta, ondorioz, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (Osasun Saila) eskura dituen azken bertsioak aztertzen dira.

Eskualdeetako Batzorde Soziosanitarioen funtzionamenduari dagokionez, COVID-19aren pandemiak horien funtzionamendu-dinamikan duen eragin negatiboa egiaztatu da. Larrialdi sanitarioko egoerak eraginda, erakunde askok bertan behera utzi behar izan zituzten batzorde soziosanitario horiek. Kasu batzuetan, bilerak ez dira berriro egin 2020tik, eta hori oztopo nabarmena da gizarte- eta osasun-zerbitzuetako erakundeen funtzionamendu koordinaturako, eskualdeko premia soziosanitarioei arreta emateari begira.

Halaber, azpimarratu behar da ezen, hiru lurralde historikoen artean banatutako 15 esparru-protokolo zenbatzen diren arren (Arabak protokolo bakarra du; Bizkaiak 8, eta Gipuzkoak 6), erdiak baino gutxiagok dituela inplikaturako erakundeen ordezkaritza-organo juridikoki baliiodunen sinadurak. Hau da, tartean dauden erakundeek ez dituzte protokolo gehienak sinatu. Horrela, protokoloen betetze-maila oso eskasa da; izan ere, sinatuz gero, alderdiek hartutako konpromisoa berretsi eta dokumentua legitimatzen da, eta, ondorioz, baita bertan ezarritako koordinazioa ere. Antzeko zerbait gertatzen da koordinazio-prozedurekin, baina sinatu gabekoen ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 28 bakarrik).

Esparru-protokoloen eta koordinazio-prozeduren azterketan identifikaturako beste oztopo garrantzitsu bat da dokumentuak zaharkituta geratu direla; horrek adierazten du ze gutxi erabili diren, eta ze gutxi egokitu diren urteek aurrera egin ahala arreta soziosanitarioko behar eta aldaketetara.

Eskualdeetako batzorde soziosanitarioei dagokienez, azterketak erakusten du batzordeen bilkurak apenas erabili direla koordinazio-protokolo edo -prozedura berriak egiteko, daudenak gainbegiratzeko edo

	<p>eguneratzeko, eta lurralde- edo autonomia-proiektuak abian jartzeko.</p> <p>Pilotuen hedapenari dagokionez, informazio hori eranskinean zehaztu da.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<p>EAEko erakunde sanitario eta sozialetan erreferente soziosanitarioaren figura hedatzeak honako arlo hauetan lagunduko duela uste dugu: sistema desberdinetako profesionalen arteko koordinazioa hobetzen, talde soziosanitarioetako profesionalen arteko komunikazioa eta konfiantza-harremanak sustatzen, zaintza partekatuen dinamika indartzen, hutsune asistentzialak murrizten eta arreta soziosanitario eraginkorragoa bultzatzen.</p> <p>Diagnostiko-txostenari eta gomendioen txostenari dagokionez, espero dugu EAEko ESIen eta gizarte-zerbitzuetako eskualdeen koordinazio soziosanitarioaren egoerari buruzko diagnostiko-txosten bat izatea, gida edo <i>Tool kit</i> soziosanitario bat egiteko abiapuntu gisa. Lagungarria izango da hori diziplina ezberdinetako profesionalek egindako esku-hartzeen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko, eta, ondorioz, horrek behar soziosanitarioak dituzten pertsonak eta haien familiek arreta hobe izatea ekarriko du.</p> <p>Pilotuen hedapenari dagokionez, informazio hori horretarako prestatutako eranskinean zehaztuta dago.</p>
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p>Erreferente soziosanitarioaren figura oso hedatuta dago osasun-sisteman, baina haren eraginkortasuna, askotan, figura horrek gizarte-eremuan daukan korrespondentziaren araberakoa da. Gizarte-zerbitzuen eremuan hori identifikatzea eta abian jartzea oraindik ere erronka handia da EAEko arreta soziosanitarioarako; horrenbestez, lortutako eta espero daitekeen hedapena lorpen garrantzitsutzat jo daiteke.</p> <p>2022ko apirilaren 26an, <i>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren erronkak eta ikuspegi berriak. Erakundeetako erreferentzia soziosanitarioaren figura</i> tailerra egin zen (Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen I. Topaketaren esparruan) eta, horren harira, egiaztatu da kontsultatutako parte-hartzaile gehienei ia erabat ezezaguna zaiela erreferentearen figura, eta beren erakundeetan ez dutela baloraziorik egiten edo balorazio mugatua egiten dutela.</p>

Aitzitik, berresten da figura horrek balio handia duela koordinazio asistentziala sustatzeko, eta garrantzitsua dela profesional horiek izatea premia soziosanitarioak dituzten pertsonen ematen zaien arretaren kalitatea hobetzeko.

Horrek agerian uzten du⁷, alde batetik, gobernantza soziosanitarioaren funtsezko figura baten hedapena indartu behar dela erakundeetan, hala nola erreferente soziosanitarioarena, eta, bestetik, giltzarri diren profesional horiek sareko lan bat garatzeko aukera funtzionala indartu behar dela, bai kasuak kudeatzeko, bai beste profesional batzuekiko eta asistentzia- eta kudeaketa-mailekiko komunikazioa errazteko, eremu berekoa edo, dagokionaren arabera, beste eremu batekoa (osasan- edo gizarte-zerbitzuetakoa).

Koordinazio-tresnei buruzko txostenari dagokionez, komeni da adieraztea batzuetan nahasmena sortzen dela esparru-protokoloak eta koordinazio soziosanitarioko prozedurak behar bezala bereizteko. Tresna horien azterketa sakona egiteko zailtasunak eragiten ditu

⁷ Jarraian, xehetasun handiagoz aurkezten da «Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren erronkak eta ikuspegi berriak. Erakundeetako erreferentzia soziosanitarioaren figura» (2022ko apirilaren 26a) tailerrean garatutako talde-dinamikan landutako AMIA matrizea.

AHULGUNEAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> • LMAUetan erreferente bat izateko beharra • LMAUetako gizarte-langilea • Baliabideak ez ezagutzea • Bi sistemek parte hartutako baliabideen eskasia • Arreta asistentzialak gure ahalegin guztiak bereganatzen ditu • Koordinazio-kulturarik eza • Egitura ez indartzeko planteamendua • Jakintza kudeatzeko denborarik eza • Pertsonaren ikuspegi osorik eza • Denbora-falta • Langileen txandaketa • Esklusibotasunik eza • Maila desberdinek elkar ez ezagutzea • Erabakitze ahalmena (osasan mentala) • Izapideak bikoiztea • Berehalakotasuna • Lan-zama (burokrazia) • Apustu politikoa • Proiektuen garapenari buruzko informazio urria • Koordinazio-tresna arinak • Zuzendaritzaren laguntza (osasan mentalean) • Denbora-falta • Guztia oso pertsonalizatua izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Kliniko arlo sozialaren gainetik lehenestea • Pandemia: osasan-arloaren eta gizarte-zerbitzuen erantzun koordinatua behar dela • gelditu da agerian • Egoera ekonomikoa: baliteke baliabideak mugatuak izatea • Koordinazio soziosanitarioa zorroan azkenean • Bai, baina ikusiko dugu • Elkarrengarritasuna Historia kliniko soziosanitarioa • Elkar ezagutzea • Administrazio-zitak (txostenak) • Itxaropenak ez dira bete • Mendekotasuna handitzea • Baliabide nahikorik ez • Pertsona bere ingurunean atxikitzea • Bizikidetzatza-unitateak • Komunikazioa • Eskari handia • Lantaldean integrazioa • Berehalakotasuna • Baliabide gutxi • Zailtzeak gabe • Funtzionatzen duena bizkortzea • Historia soziosanitarioa • Benetako talde-lana
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioko lantaldeak bultzatzea • Bi sistemetan diziplina aritzeko lantaldeetan lan egiteko ohitura egotea • Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen sistema ezagutzea • Elkartze eta hausnartzeko –barne eta kanpora begirako– guneak sortzea • Zerbitzuen eta prestazioen kudeaketaren bideratzailea • Pertsonaren ikuspegi osoa • Lankideei: sistemari buruzko elkarren ezagutza ematen zaie • Baliabideak: denbora, espazioa eta baliabide informatiboak • Lankideei: diziplina aritzeko esku-hartzea behar duten kasuak planteatzeko bidea izatea • Lankideei: esparru soziosanitarioko protokoloa eta baliabideen berri ematen zaie • Eusko Jaurlaritzaren estrategia • Erakunde guztiekin loturak ezartzea • Protokoloak eta baliabideak zabaltzea • Osasunarekin, batzorde soziosanitarioak, etab. • Beste sistemaren ezagutza • Ikuspegi soziosanitarioarekin lan egitea • Denbora ematea • Berdinkideten arteko komunikazioa • Prestakuntza • Elkarri eragiteko aplikazio propioa • Koordinazio-egiturak • Informazio partekatzea • Beste mailarako sarbidea • Esperientzia • Kontzientzia 	<ul style="list-style-type: none"> • Sare egituratua • Informazioa partekatzea

	<p>horrek, baina, horrez gain, koordinazio soziosanitarioko tresna bakoitzaren berezitasunaren eta helburuen komunikazioa eta ulermena indartzeko beharra ikusi da.</p> <p>Era berean, egungo esparru-protokoloak eta koordinazio-prozedurak gaurkotasunik ezak ezaugarritzen ditu; agerikoa da hobetu egin behar dela horretan, erakunde bakoitzaren barne-aldaketek eta kanpo-faktoreek protokoloetan jasotako prozesuak eta profesionalak berrikustea eta egokitzea beharrezkoa dute eta.</p> <p>Era berean, <u>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuak</u> araututakoaren arabera, eskualde-batzordeen etorkizuneko osaerak dakarren aukera nabarmentzen da, eskualdeko gizarte-eremuko ordezkarien presentzia orekatzeko eta horietan duten ordezkartza txikia zuzentzeko aukera eskaintzen baitu.</p> <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoa egitea lehen urratsa da arreta soziosanitarioan inplikaturako erakundeen errealitate asistentziala ezagutzeko. Ateratako ondorioetatik abiatuta, indarrak eta hobekuntza-arloak identifikatzen dira. Horietan oinarritzen dira gomendioak⁸, eta, gainera, <i>tool kita</i> edo</p>
--	--

⁸ Egindako diagnostikoan oinarrituta eta identifikaturako hobekuntza-arlo nagusiak kontuan hartuta, gomendio batzuk eman dira, eta gomendio horiek gauzatzuz gero, erakundeetan indarrean dauden koordinazio soziosanitarioko mekanismoak eta, hedaduraz, koordinazioa bera hobetu daitezke. Gomendio horien helburua da:

- Agente minoritarioek batzorde soziosanitarioetan (oinarriko gizarte-zerbitzuak) parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea, kideen parekotasuna bilatuz.
- Batzorde soziosanitarioak egiteari aitorza eta balioa ematea, bai bileren maiztasuna bermatzeari dagokionez, bai bileretan jorratutako edukiei dagokienez.
- Profilak eta parte-hartzaileak meso- eta mikro-mailetan koordinazio asistentzialeko jardueraren benetako beharretara egokitzen saiatzea.
- Koordinazio-tresna guztiak berrikustea eta eguneratzea (esparru-protokoloak eta koordinazio-prozedurak), batez ere zaharrenak.
- Ezarritako forma-baldintzetara egokitzea tresnok, zehazki: dokumentua noiz egin den zehaztea, sinadurak aurkeztea, berrikuspen-taula gehitzea, egindako azken eguneratzea eta aldaketa esanguratsuenak adierazita, erreferentziako profesionalen harremanetarako datuak sartztea (kontaktuen direktorioa), etab.
- Dokumentuak sinatzeko zeregin juridiko-administratiboak erraztea, bereziki protokoloen kasuan.
- Komunikazio- eta hedapen-ekintza jakin komunak planifikatzea eta garatzea arreta soziosanitarioan inplikaturako profesional guztientzat.
- Protokoloak eta prozedurak berrikusteko eta eguneratzeko prozesua eta maiztasuna zehaztea.
- Protokoloak eta prozedurak ebaluatzeko eta eguneratzeko bilerak egin direla adieraztea (jarraipen- eta ebaluazio-batzordeak).
- Esparru-protokoloen egitura eta forma homogeneizatzea.
- Berrikustea eta gaztelaniaren erabilera ez-sexistara egokitzea.
- Protokoloetan eta prozeduretan jasotako helburuak eta xedeak betetzen direla ziurtatzea.
- Jarraipen- eta emaitza-adierazleen ustiapen sistematikoa.

	gida kontzeptuala formulatzeko abiapuntu dira, koordinazio-tresnen ulermena eta aplikazio praktikoa errazteko.
--	--

11. Arreta soziosanitarioaren xede-kolektiboen jarduketak	
Proiektuaren egoera	Hasi gabe. Proiektu hau ez da oraindik hasi, operatiboki zaila baita aldi baterako abiaraztea EASEren ekimen guztiak.
Proiektuaren hasiera-data	

12. Arreta Goiztiarra eta hezkuntzako eremu soziosanitarioa garatzea	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasiera-data	2022ko urtarrila.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Bizkaiko Foru Aldundia, Balorazio eta Orientazio Zerbitzuaren (BFA) eta Lantiken (BFA) bitartez. • Bilbo-Basurtuko ESia (Osakidetza) eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESia (Osakidetza), garapenaren pediatriako, jaioberriaren unitateko eta neuropediatriako zerbitzuetatik. • Bilboko Haurren eta Nerabeen Osasun Mentaleko Zentroa (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, BOMS-Osakidetza). • Haurren Osasun Programa (Lehen Mailako Arretako Zuzendariorde, Osakidetza Zuzendaritza Nagusia) • Informatikako Zuzendariorde (Osakidetza Zuzendaritza Nagusia)
Proiektuaren helburuak	Koordinazio soziosanitarioa eta hezkuntzako hobetzea eta EAEn premia bereziak dituzten haurrentzako arreta-eredua indartzea.
Aurrekariak	<i>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehen Mailako Estrategikoen (2017-2020)</i> arabera, 0 eta 6 urte bitarteko haurren premia berezietan hiltzea xede-kolektibo soziosanitario desberdinentzako asistentzia-ibilbide espezifikoak definitzearekin eta garatzearekin lotutako

- Tokiko koordinazio-prozedura berriak sor daitezkeen bultzatzea.

	<p>helburuetako bat zen, eta, azken batean, EAEn arreta goiztiarraren funtzionamendua hobetzeko formula.</p> <p>Arreta goiztiarrak 0 eta 6 urte bitartean garapen-premia bereziak dituzten haurren estimulazioa sustatzen du, eta, ondorioz, 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa da. Esku-hartze horien helburua da garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta azkarren eta modu integralenean erantzutea, osasungintza-, hezkuntza- eta gizarte-arloetako diziplinarteko ikuspegi batetik.</p> <p>Bestalde, arreta soziosanitarioa eta hezkuntzako pediatria-adinako haurrek dituzten premia konplexuei erantzutera bideratzen da (6 urte bete ondoren).</p> <p>2010. urtean, <i>Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarraren Eredua</i> onartu zen ASEKen. Dokumentu hori Euskal Autonomia Erkidegoko osasungintzako, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako ordezkariak egin zuten, eta arreta goiztiarraren etorkizuneko garapenerako oinarriak ezartzen ditu. Funtzionalki, Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantalde (AGBL⁹) eta Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Lantaldetan (AGEL) dago egituratuta.</p> <p>Araudiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak oinarritzko arauak ezartzen ditu arreta goiztiarraren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen eremuetatik garatzen diren esku-hartze guztiak antolatzeko eta koordinatzeko, zuzenean inplikaturako osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuen jarduketak behar bezala koordinatuko dituen eredu integral eta efikaz bat bermatze aldera.</p> <p>Arlo operatiboan, arreta goiztiarrak izaera mistoa eta diziplinartekoa du, eta osasungintza-, hezkuntza- eta gizarte-arloko profesionalak eta baliabideek esku hartzen dute bertan. Beraz, zerbitzu publikoen (osasungintza// hezkuntza// gizarte-zerbitzuak)</p>
--	---

⁹ AGBL kudeaketa publikoko kide anitzeko organoa da, arreta goiztiarraren arloan eskumena duen sailari atxikia, eta osasun-sistemako, hezkuntza-sistemako eta gizarte-zerbitzuen sistemako profesional adituz osatuta dago; koordinatuta dihardute kasuen balorazioan eta proposamen teknikoak egiteko garaian. AGBLan, horretarako izendatutako hiru sistemetako hainbat profesionalak parte hartzen dute, prozedurak, helburuak edo jarduketako ildoak adosteko eta sistema bakoitzak proposatzen dituen kasuetan esku-hartzea kontrastatzeko eta zehazteko.

	eskumenak eta prozedurak koordinatzea erronka handia da arreta optimizatzeko eta osagarria izateko.
Lan-metodologia	Erabilera-kasuan oinarritutako metodologiari lotuta dago (elkarreragingarritasun soziosanitarioaren garapena), eta sistema baten eta haren zerbitzuren bat erabiltzen duen norbaiten edo zerbaiten arteko elkarreragin-sekuentzia dakar. Kasu zehatz honetan, metodologiari dagokionez, osasun-eremuaren eta gizarte-zerbitzuen eremuaren arteko informazio-trukeak elektronikoki aztertuko dira, arreta goiztiarrarekiko koordinazioa optimizatzeko.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-eremuaren eta gizarte-zerbitzuen eremuaren artean informazioa elektronikoki trukatzeko aukerak aztertzea (elkarreragingarritasuna), arreta goiztiarra jaso dezaketen haurren arretaren koordinazioa hobetzeko, honako hauen bidez: <ul style="list-style-type: none"> - Arreta goiztiarreko prestazioan gizarte- eta osasun-zerbitzuetako sistemako profesionalentzat garrantzitsua eta egokia den informazioa identifikatzea. - Bizkaiko AGBLan (BFA) hautatutako informazioaren egokitasuna baloratzea eta datuen gutxieneko oinarrizko multzoa (DGOM) egitea. - DGOMa proiektuaren lantaldearekin alderatzea. - Pazientearen oinarrizko datuetan (POD) beharrezkoa den informazioa egituratzea, Osakidetzaen historia kliniko elektronikoan (Osabide Global) formularioetan sartutakoa. - Osabiden arreta goiztiarra behar duten haurrak identifikatzea, bai gertaeren bidez, bai formularioetan sartutako PODren baten bidez. - Informazioa bi norabidetan trukatzeko aukeren azterketa (Osakidetza → BFA; BFA → Osakidetza). - Haurren oinarrizko fitxan eta formularioetan jasotako datuak baliozkotzea lehen mailako arretako zentroetan eta proiektuan parte hartzen duten ospitaleetan (Basurtuko Unibertsitate Ospitalea eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea). • Proposamen funtzional bat egitea, foru-aldundietako gizarte-zerbitzuen (BFA) eta lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren (Osakidetza) arteko txosten-eskaerak kudeatzeko bi norabideko sistema bat garatze aldera.

	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiak proposatutako informazio-trukeko eredu funtzionalaren eta Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetako arteko kontrastea, 2023an osatzekoa.
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> • 9 bilera, aktarekin dokumentatuta. • 1 proiektu-fitxa. • 1 proiektu-dokumentu. • 1 eredu funtzional, lotutako datuak trukatzeko diagramekin. • 1 erabilera-kasua ebaluatzeko proposamen (erabilera-kasu bakoitzaren talde eragilearen kontrastea falta da).
Proiektuak zer aliantza dituen	<p>Eusko Jaurlaritzaren koordinazio soziosanitarioaren eremuan: Osasun Saila, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren bidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Familia Zuzendaritzaren bitartez.</p> <p>Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoak (Eusko Jaurlaritza) foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren (Osasun, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako eta Hezkuntza sailak) arteko lan bateratua eta adostasunezkoa eskaintzen digu.</p>
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	<p>Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion erabilera-kasuari lotutako talde eragileak informazioa trukatzeko eredu funtzional bat amaitu du.</p>
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	<p>Proiektu hau elkarreragingarritasunaren arloko erabilera-kasuetarako metodologiaren arabera ere garatu da, familiek arreta pertsonalizatuko plan partekatua eduki ahal izateko. Plan horretan, hiru eremuetako (soziala, osasuna eta hezkuntza) esku-hartzeak jasoko dira.</p> <p>Proiektuaren onura potentzialen artean, erabilera-kasuak ematen dituen aukerei estuki lotuta, honako hauek identifikatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta goiztiarreko zerbitzuen hornidura hiru eremuetako edozeinetatik has daiteke (osasungintza, gizarte-zerbitzuak edo hezkuntza), eta, horretarako, kasu guztiak identifikatu, eta kode bat eman behar zaie, arreta hasi den eremua edozein dela ere. Hasi batean beste eremuren batean esku hartu behar ez bada, besteei jakinaraziko zaie, eskariaren plangintza eta familiekiko jarrera proaktiboa aurreikusita.

	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek arreta pertsonalizatuko plan partekatu bat izatea, non hiru eremuetako bakoitzaren esku-hartzea adieraziko den. Beraz, foru-aldundiek onartzen dute arreta-planaren erreferentea direla, eta arreta sanitarioa plan horretan txertatzen dute. • Kasuak arreta-eremu batetik bestera bideratzeko (soziala, sanitarioa eta/edo hezkuntzako), beharrezkoa da informazioa trukatzeko, eta osasun-informazioa lortzea zaila denez, oso onuragarria izango da informazioa trukatzeko prozedura bat ezartzea.
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • <u>13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzkoa</u>, arau-esparru bat da arreta goiztiarreko esku-hartze integraleko eredu baterako, eta haren kalitatea eta efikazia bermatzen ditu. • Proiektua parte hartzen duten eragileen baliabide informatikoen eskuragarritasunaren araberakoa da, haien informazio-sistemak egokitzeko. Osakidetzaren kasuan, honako saiakera-data hauek ezarri dira: 2023ko udaberrirako softwarea definitzea eta pilotua 2023ko ekainean hastea. Gainerako erakundeek ez dute datarik planteatu.

6. I+G+B SOZIOSANITARIOA

I+G+B SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>EAEko ekosistema soziosanitarioan <i>Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren</i> esparruan bultzatzen da I+G+Ba, gizarte berdeago, digitalago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko apustu gisa.</p> <p>Ekosistema soziosanitarioan sortu eta handik bultzatutako ezagutza sortzeko eta zabaltzeko konpromisoaren adierazpena da arloa.</p> <p>Helburu horrekin, I+G+Baren aldeko apustua hiru proiektutan gauzatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Arreta soziosanitarioaren ataria. Ezagutzaren sorketa eta hedapena. 1.2. I+G+B soziosanitarioaren arloko politikai eta ekimenei buruzko erreferentzia-nodoa. 1.3. Ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea.
13. Arreta soziosanitarioaren Ataria. Ezagutzaren sorketa eta hedapena	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasiera-data	Jarraitutasun-proiektu bat da, 2016ko apirilean Arreta Soziosanitarioaren Ataria sortu eta argitaratzearekin hasi zena, eta ordutik garatzen ari da, batez ere albisteen, ekitaldien eta dokumentazioaren ataletan edukiak astero sortzeari eta argitaratzeari dagokionez.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritza (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza). • Hizkuntza Normalizazioko Zerbitzua (Osasuneko Lurralde Ordezkaritzak, Eusko Jaurlaritza).
Proiektuaren helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema soziosanitario osoarentzat interesgarriak diren ekimenei buruzko informazioa zabaltzea Arreta Soziosanitarioaren Atariaren bidez, erreferentziako erakunde-gune gisa. • EAEko eremu soziosanitarioko informazio-erreferente instituzionala izaten jarraitzea.
Aurrekariak	Proiektu honen hastapenak <i>Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoetan (2013-2016)</i> daude. Dokumentu estrategiko horrek, <i>2. lerroko (Informazio eta Komunikazio Soziosanitarioko Sistema)</i> helburuen artean, web-atari bat diseinatu eta abian

	<p>jartzea jaso zuen, horren bidez aurkezteko atari horretan EAEko arreta soziosanitarioari buruzko informazio estrategikoa, egungo gaiei buruzko informazioa eta garatutako proiektuei buruzkoa, bai eta EAEko herritarrei arreta soziosanitarioa emateko baliabideei buruzko zerbitzu-informazioa (aurrerantzean, 2016ko Mapa).</p> <p>2016ko apirilean lehen aldiz argitaratu zenetik, proiektuak bilakaera izan du bai edukien bolumenari bai argitalpenen maiztasunari dagokionez, eta informazioa eguneratzeko prozesuei ekin zaie hainbat ataletan.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>2022an, funtsezko hiru lan-ildo garatzen jarraitu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eta dokumentazioa bilatzea, atariko albisteen, agendaren eta dokumentu-erreferentzien ataletan edukiak sortzeko eta zabaltzeko oinarri gisa. • Atariaren edukiak eguneratzea, EASSE 2021-2024an aurreikusitako jarduketa-eremu eta proiektuen garapenaren ondoriozko informazio estrategikoa zabaltzeko. • Atariko edukien tratamendua berrikusteko eta estandarizatzeko prozesu bat garatzea, argitaratutako edukiei etiketa elebidunak esleituz.
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<p>Arreta Soziosanitarioko Atariak EAEko eremu soziosanitarioko informazio-erreferente instituzionala izaten jarrai dezan, 2022an prospektiba eta zaintza estrategikoko jarduerak egin dira, argitara daitezkeen erreferentziak identifikatze aldera.</p> <p>Era berean, edukiak astero argitaratu dira atariko hainbat eremutan.</p> <p>2022an, Arreta Soziosanitarioko Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari lotutako helburuak lortzeko 2021ean egindako lanen azterketa argitaratu da. Bertan, web-posizionamenduaren (SEO) ebaluazioa ere jaso da, bai eta Arreta Soziosanitarioko Atariaren nabaritasuna, sarean duen egoera eta proiektzioa baloratzeko, eta, hedaduraz, atariko eduki digitalek EAEko ekosistema soziosanitarioko eragileentzat zer interes- eta erabilgarritasun-maila duten baloratzeko. Era berean, azken hiruhilekoan, Arreta Soziosanitarioko Atariaren inguruan 2022an egindako lanen azterketa osatu da, eta <i>Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari, nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko Txostena (2022)</i> egin da.</p> <p>Gainera, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren Arreta Soziosanitarioko Buletina (ASB 19 zk.) zabaltzen hasi da, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren</p>

	<p>laguntza teknikoarekin (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza), eta ASB hedatzeko plataforma aldatu da (2022ko ekainean Spot-Hit erabili zen, eta 2022ko irailean, berriz, Mailrelay), bidalketa-prozesuan eta informazio-lorpenean efizientzia handiagoa lortu nahi delako, haren helburuak zehaztu eta betetzeko. Plataforma aldatzearen ondorioz, 2017ko abendutik lehen aldiz lortu da (1. zenbakidun ASBren bidalketa) 19. zenbakidun ASBri eta 20. zenbakidun ASBri dagokien hedapen-prozesuari buruzko informazioa. Oro har, hedapen-prozesu baten emaitzak (bidalitako elementua zenbatetan ireki den) % 20tik gorakoak direnean, onargarrizat jotzen da. Bidalitako 19. ASBa aldien % 27,9an ireki da. 20. ASBren kasuan, bistaratze-datuak % 70,6 dira, hau da, hedapen-prozesu baten emaitza onargarria izateko gutxieneko erreferentzia (% 20) halako hiru.</p> <p>Hedapen-plataforman egindako aldaketek (2022ko ekaina, iraila eta abendua) onurak dakartzate ASBren bidalketa bakoitzarekin lortutako informazioari dagokionez (19. zk., 20. zk. eta 21. zk.). Horrela, bi plataformei dagokienez, hedapen-zerrendan dauden okerreko helbideak identifikatzeko eta garbitzeko aukera planteatzen da (ekosistema soziosanitarioko 3.000 erakunde eta profesional baino gehiagoren helbide elektronikoei osatzen dute zerrenda hori).</p> <p>Halaber, atariko edukien tratamendua berrikusteko eta estandarizatzeko lana egin da; horretarako, etiketak esleitu dira, hiztegi elebidun kontrolatu bat izateko, bilaketen bidez edukiak berreskuratzea eta horiek posizionatzea hobetzei begira. Horretarako, katalogo elebidun bat osatu da; 750 termino baino gehiago biltzen ditu.</p>
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Proiektuaren jarduera-adierazle nagusiak honako hauek dira: argitaratutako edukien kuantifikazioa; eduki horien emaitzak, Arreta Soziosanitarioko Atarian duten posizionamenduari, nabaritasunari eta kontsumoari dagokienez; ASBren hedapena eta horrek atariaren posizionamenduari eta nabaritasunari egiten dion ekarpena, eta EASE 2021-2024 garatzen ari den eremuak eta proiektuak hedatzeko ekintzak. Hori guztia honako hauetan zehazten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari, nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko Txostena (2021)</i> argitaratzea (2022/01/03). • EASEren esparruan abian diren proiektu soziosanitarioei buruzko eduki estrategikoak dituzten atalak eguneratzea (2022).

	<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratutako edukien tratamendua berrikusteko eta homogeneizatzeko proposamena (2022/04/26) eta edukiak etiketatzeko 750 termino baino gehiago dituen katalogo elebiduna egitea (eguneratze etengabekoa). • BIOEFetik ASZri adieraztea ASB ekosistema soziosanitarioko profesionalen eta erakundeen 3.000 helbide elektronikoko baino gehiagotara hedatu dela. • Bidalketen plataforma aukeratzea; hasieran Spot-Hit zen (2022/06/15) eta gero Mailrelay plataformara aldatu zen, (2022/09/21 eta 2022/12/14), ASB ekosistema soziosanitarioko 3.000 helbide baino gehiagotara zabaltzeko. • Argitalpenen hileko programazioa. • 52 mezu idaztea, Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioko arduradunei eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari (Eusko Jaurlaritza) astero eduki berriak helarazteko. • 52 albiste idaztea eta argitaratzea 2022an. • 190 dokumentu-erreferentzia baino gehiago hautatu eta argitaratzea 2022an (COVID-19ari buruzko erreferentzia espezifikokoak zenbatu gabe). • Eremu soziosanitarioan COVID-19aren epidemiari buruzko 60 dokumentu-erreferentzia hautatu eta argitaratzea 2022an. • 125 agenda-erreferentzia (ekitaldiak) baino gehiago hautatu eta argitaratzea 2022an (udako ikastaroak zenbatu gabe). • Udako ikastaroei dagozkien 60 agenda-erreferentzia (ekitaldiak) baino gehiago hautatu eta argitaratzea (2022). • Arreta Soziosanitarioko Buletinaren hiru hilekoko 4 ale prestatzea (18., 19., 20. eta 21. zenbakiak). • Arreta Soziosanitarioko Buletina, hiru hilean behin, 3.000 helbidetara bidaltzea. • Arreta Soziosanitarioko Buletina hiru hilean behin bidaltzen zaien 3.000 pertsona eta erakunde harpidedunen zerrenda araztea eta etengabe eguneratzea. • Plan eta proiektuei buruzko informazioa eguneratzea (2022). • Lan-saioa Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) teknikari-informatikariekin, 19. ASB Spot-Hit plataforma berriarekin hedatzeko prozesuaren emaitzak eta eragina ebaluatzeko (2022/07/05). • Baliabide soziosanitarioei buruzko txosten analitikoak, Open Datan argitaratua (2022/10/25), Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak emana (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza). • Web-erabilerraztasunari buruzko txostena, emaitza onak dituen (egokitasun-maila ona) (2022/10/26), Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak emana
--	--

	<p>(Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza).</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari, nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko Txostena (2022)</i> txostena egitea.
<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) lankidetzan tekniko-informatikoa atariko eduki estrategikoak eguneratzeko prozesuetan, bai eta edukiak argitaratzean sortzen diren gorabeherak kudeatzean ere. • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) langile tekniko-informatikoen laguntza, ASBren hedapen-prozesua Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzara aldatzeko, Spot-Hit plataformarekin eta, ondoren, Mailrelayrekin, bai eta 19., 20. eta 21. zenbakidun ASBen hedapen-prozesuen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa osatzeko ere. • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) teknikari-informatikarien lankidetzan, Arreta Soziosanitarioko Atariak Interneten duen posizionamendua ebaluatzeko. • Hizkuntza Normalizazioko Zerbitzuko (Osasun Lurralde Ordezkaritzak, Eusko Jaurlaritza) teknikari-informatikarien laguntza, atariko edukiak berrikusi eta homogeneizatzeko, bai eta argitaratutako edukiak euskaraz tratatzeko ere.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratutako edukien tratamendua berrikusteko eta homogeneizatzeko prozesuaren eraginez, katalogo elebidun bat sortu da; edukien etiketetan erabilitako 750 terminoz osatu da hori. Horri esker, hiztegi kontrolatua izango dugu, eta kontzeptu bat modu unibokoan adierazten duten termino normalizatuak erabili ahalko ditugu aurkibide gisa. Azken batean, prozesu horrek honako hauek lortzen laguntzen du: <ol style="list-style-type: none"> a) Argitaratutako edukiak etiketatzeko zereginak hobetzea. b) Arreta Soziosanitarioko Atariaren edukiak web ingurunean hobeto kokatzea. c) Argitaratutako edukiak ahalik eta modu efizienteenean berreskuratzea. • ASBren hedapen-plataforman izandako aldaketek (2022ko ekaina, iraila eta Abendua, Spot-Hit lehen kasuan eta Mailrelay ondorengo bi bidalketetan) aukera ematen dute bidalketa bakoitzaren gauzatzeari buruzko informazioa eskuratzeko eta hedapen-zerrendako (ekosistema soziosanitarioko 3.000 erakunde eta profesional baino

	<p>gehiagoren helbide elektronikoz osatua) helbide okerrak identifikatzeko eta arazteko. 19. zenbakidun ASBren hedapen-prozesuan, buletina entregatzeko zailtasunak nabaritu dira helbideen % 11,7an, alegia, «entregatu gabe» gisa katalogatu dira. Zuzendaritzen zerrenda berrikusteko prozesua egin da (helbide-domeinu zaharkituak eguneratzea, erretiratutako profesionalei dagozkien kontuak kontrastatzea eta ezabatzea, etab.), eta okertzat jotako helbideen % 53 araztea lortu da (2022ko ekaina). 20. ASB hedatzeko Mailrelay plataforma aukeratzeak (2022ko iraila) berriz ere aukera eman du hartzaileen helbideei lotutako akatsak identifikatzeko. 20. ASBren bidalketan akats kopuru txikiagoa detektatu da (% 7,3), 21. ASBren bidalketarekin identifikatutakoaren antzekoa, horren intzidentzia kopurua % 7,4 baita (ASB zerrenda beltzean sartzen duten helbideengatik gertatzen diren erroreak, hartzaileen postontzi ez-aktiboak edo beteak edo existitzen ez diren domeinuak, besteak beste).</p> <p>Berriz ere, domeinuak eguneratu dira, kontuak egiaztatu, eta helbide okerrak edo jubilazio-egoeran dauden profesionalen helbideak ezabatu, akatsen arazketa osatu arte (% 100).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Google.es-en posizionamenduari dagokionez, Arreta Soziosanitarioko Atariaren emaitzek (laugarren ageri da «atención sociosanitaria» terminoa 2022an) eta ekosistema soziosanitarioko agenteen imajinarioan lortutako nabaritasunak, baita web-erabilerraztasuneko irizpideekiko betetze-mailak ere, egindako kudeaketa editoriala ziurtatzen dute. Hala, web-posizionamenduko estrategiak (SEO) ataria informazio estrategiko, gaurkotu edo zerbitzu publikokoaren bila bisitatzen dutenen fideltasun-maila handia izatea lortu du 2022an. • Arreta Soziosanitarioko Buletinek Arreta Soziosanitarioaren Ataria ezagutarazten eta atariko ezagutza sustatzen jarraitzen dute pertsona eta erakunde harpidetu berrietara iritsiz; beraz, gero eta gehiago dira Arreta Soziosanitarioaren Atariko eduki digitalak ezagutzen dituzten pertsonak eta horien kontsumitzaileak. • Egiaztatu denez, zaila da profesionalen datu-basea eguneratuta edukitzea; izan ere, profesionalen txandakatze handia dago gizarte-zerbitzuetan eta arlo sanitarioan, eta <i>baby boom</i>-ean jaiotako profesionalen gero eta erretiro gehiago erakundeetako plantilletan. Hedaduraz, zaila da ASB bidaltzen den base sozialari eustea; izan ere, buletina hiru hilean behin 3.000 hartzailehengana helarazten da. • 2022an, atarian argitaratutako edukiak kontsumitu ohi dituen publiko fidela dagoela egiaztatu da (goranzko
--	---

	<p>portaerarekin). Atarian hilean 2.444 bisita izaten dira, eta edukiek batez beste 4.977 bisita jasotzen dituzte hilean.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EASE 2021-2024an jasotako proiektu estrategikoei buruzko edukiak eguneratzeak lagundu egiten du konpromiso estrategikoen garapenean egiten diren aurrerapenen justifikazio publikoa eta gardena egiten. • Hiztegi kontrolatu bat edukitzeak, termino normalizatuen aurkibide gisa, Arreta Soziosanitarioko Atariak web-ingurunean dituen edukien posizionamendua hobetzen laguntzen du, eta argitaratutako edukiak modu efizienteagoan berreskuratzen laguntzen du. • Arreta Soziosanitarioko Atariak sendotu egiten du informazio estrategikoa eta instituzionala, gaurkotasuneko edo zerbitzu publikokoa kontsultatzeko erreferentziako gune gisa duen izaera, eta haren garrantzia EAEko mugetatik haratago doa. Google.es-en web-posizionamenduari (SEO) dagokionez (gaztelaniaz), aurreko hiru orrialdeak ezin dira lehiakidetzat hartu, edukiek prestakuntza-orientazioa baino ez baitute. • Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren hedapen-prozesuaren garapenak normalizatu egiten du hari esleitutako lanaren garapena, <u>Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 116/2021 Dekretuaren arabera</u>.
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera esperodun - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • 2023ko urtarrilean izango dugu atariaren jarduerari eta posizionamenduari buruzko urteko txostena (2022). • 2022an ASB 3.000 helbide baino gehiagori helaraztea lortu da. • ASBren arrakasta, neurri handi batean, hedapen-prozesuaren ezaugarriengatik izan da. Posta bidez helarazten da, eta bi fitxategi elebakar eransten zaizkio (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz), zeinetan buletinaren edukiak pdf formatuan jasotzen baitira (beste ekimen batzuek ez bezala, horiek edukiak online banatzea eta edukiak html formatuan maketatzea aukeratzen baitute). • Ataria hirugarren postutik laugarrenera jaitsi da 2022an Google.es-en, bai gailu mugikorretan, bai mahai gainekoetan (bilaketa «atención sociosanitaria» terminoarekin egin da); hala, 2020an lortutako postura itzuli da. Postu on horrek agerian uzten du EAEko arreta soziosanitarioak web-sisteman duen garrantzia, eta ataria informazio-erreferente bihurtzen du antzeko ekimenean artean.
<p>14. I+G+B Soziosanitarioaren arloko politikei eta ekimenei buruzko erreferentzia-nodoa</p>	
<p>Proiektuaren egoera</p>	<p>Aribidean.</p>

Proiektuaren hasiera-data	2021eko iraila.
Lantaldea	EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea.
Proiektuaren helburuak	Berrikuntza eta ikerketa soziosanitario oinarritzkoaren eta aplikatuaren arloko erreferentziako nodo bat artikulatzea, I+G+B soziosanitarioko politikari eta ekimeneri buruzko informazioa biltzeko.
Aurrekariak	<p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoek (2017-2020)</u> 6. lehentasuna berrikuntza-gune bat sustatzera bideratu zuten, eremu soziosanitarioan ezagutza sortzeko eta hura transferitzeko.</p> <p>I+G+B arloko ekimenak eta politikak identifikatzeak aukera ematen du esparru soziosanitarioan erreferente diren eragile eta erakundeen artean baliozko informazioa sarean trukitzea sustatzeko.</p>
Lan-metodologia	<ul style="list-style-type: none"> Edukien proposamen teknikoa egitea Lehendakaritzak antolatutako Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Trakzio Ekimeneren jardunaldirako.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> Next-Care mugaz gaindiko poloaren batzorde eragilean parte hartzea. NEXT-CARE «Ekosistema» Lehen topaketa antolatzen parte hartzea. Irun (2022/03/17-18). Pasaia Herri Lab (Adinberri Fundazioa) proiektuaren talde eragilean parte hartzea. Orkestaren Aholku Batzordean parte hartzea. Laguntza adimenduneko etxeko zerbitzu eta zainketa soziosanitarioak antolatzeko konponbide integraleko proiektua da, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren (Eusko Jaurlaritzak) HAZITEK deialdiaren esparruan garatzen da (2022/04/06). Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Trakzio Ekimeneren jardunaldia egiteko logistika-lanak, Lehendakaritzak antolatua (2022/10/18). Edukien proposamen teknikoa egitea Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Trakzio Ekimeneren jardunaldirako. Jardunaldia Lehendakaritzak antolatu du Europa Jauregian (Gasteiz) (2022/10/18). Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Trakzio Ekimeneren jardunaldian parte hartzea. Jardunaldia Lehendakaritzak antolatu du Europa Jauregian (Gasteiz) (2022/10/18). Europako Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentziako gune gisa berregiaztatzeko dokumentazio teknikoa egiten parte hartzea, zahartze aktibo eta

	<p>osasungarriari modu integralean heldu diolako, berrikuntzan oinarrituta (Europako Erreferentzia Guneen 4. Deialdia).</p> <ul style="list-style-type: none"> • «Adineko pertsona aktiboak - premia, erronka eta aukera» jardunaldian parte hartzea, «Euskadi, zahartze osasungarri eta aktiborako lurraldea» txostenarekin (Nagusi Intelligence Center, BEAZ-DFB) (2022/10/27).
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Trakzio Ekimenen jardunaldia ospatzea, Lehendakaritzak antolatua Europa Jauregian (Gasteiz) (2022/10/18). • Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Trakzio Ekimenen jardunaldian parte hartzea. Jardunaldia Lehendakaritzak antolatu du Europa Jauregian (Gasteiz) (2022/10/18). • Europako Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentziako gune gisa berregiaztatzeko proposamena, zahartze aktibo eta osasungarriari modu integralean heldu diolako, berrikuntzan oinarrituta (Europako Erreferentzia Guneen 4. Deialdia) eta kalifikazio gorena lortu duelako. • «Euskadi, zahartze osasungarri eta aktiborako lurraldea» txostena (Nagusi Intelligence Center, BEAZ-DFB) (2022/10/27). • Iraupen luzeko zaintzei buruzko Euroeskualdeen Berrikuntza, Ikerketa eta Prestakuntzako NEXT-Care Sarean (NAEN) parte hartzea.
<p>Proiektuak zer aliantza dituen</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzako Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Lehendakaritzarekin duen lankidetzak sinergiak garatzen laguntzen du Espezializazio Adimenduneko Estrategia (RIS3) hedatzeko esparruan, zehazki, zahartze osasuntsuari dagokionez, zeharkako espezializazio-eremu gisa. • Lankidetzaz Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin (Eusko Jaurlaritza), iraupen luzeko zaintzei buruzko Euroeskualdeen Berrikuntza, Ikerketa eta Prestakuntzako NEXT-Care Sarearen bidez. • Zahartze osasuntsuaren arloan I+G+B sustatzen duten gizarte-eremuko erakundeekin lankidetzan aritzea (Adinberri, Nagusi Intelligence Center, etab.). • BIOEFekin, bioinstitutuekin eta Kronikgunerekin lankidetzan aritzea, ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzeko, eremu soziosanitarioko erreferente aditu gisa.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Eremu soziosanitarioko berrikuntza eta ikerketa oraindik ere estandarizazio eskaseko lan-eremua da, eta «soziosanitarioa» eremu strategikotzat hartzen duten ikuspegi ugariak.</p> <p>Zuzendaritza soziosanitarioak ezagutza- eta ikerketa-arloetan aurrera egitea eta parte hartzea proposamen «soft» bat da, baina</p>

	sistematikoa izateko helburua du koordinazio soziosanitarioan kontzeptuak eta metodologiak bateratzeari dagokionez. Arazo nagusiak zuzendaritzaren egitura formal eskasaren ondorio dira, horrek kudeaketa, finantzaketa eta ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzea eragozten baitu.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	EAEko Osasun Sistema Publikoko eragile eta erakundeen, enpresa-sektorearen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile zientifiko-teknologikoen arteko esparru soziosanitarioaren proiektzioa.
Baloratu beharreko beste alderdi batzuk: - Zer bilakaera esperodena - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak	
15. Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik	
Proiektuaren egoera	Aribidean.
Proiektuaren hasieradata	2021eko iraila.
Lantaldea	EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea.
Proiektuaren helburuak	Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik, eta ekosistema soziosanitarioarentzat interesgarriak diren ekimenak, hedatzeko modukoak eta/edo eskalabilitatea dutenak identifikatzea.
Aurrekariak	Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sistemen oinarrietatik ezagutza sortzen laguntzeak aurrekariak ditu bi eremuetako profesional batzuek unean-unean gauzatu dituzten ekimenetan, zeinak, gerora, Jardunbide Egokitzat hartu diren.
Lan-metodologia	Kontsultatu garatzen ari diren proiektuen lan-metodologia bi arlo hauetan: 2. Elkarreragingarritasuna eta 4. Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa.
Egindako ekintzen deskribapena	Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako sistemetako profesionalek eta erakundeek asebeteta ez dauden premia soziosanitarioei buruzko ideiak (antolamendu-aldaketak, produktuak hobetzea, prozesu berriak ezarri edo garatzea, etab.) elkarlanean identifika ditzaten bultzatzen dugu; ideia horiek eremu jakin bateko proiektu pilotu bat osa dezakete gero, Koordinazio Soziosanitarioko Taldearen laguntza metodologikoarekin. Proiektu honen ekintzak 2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategiaren beste arlo batzuetako

	proiektuen garapenetan islatzen dira, hala nola Elkarreragingarritasunean (erabilera-kasuak) eta Arreta Soziosanitarioan (proiektu pilotuak).
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	Kontsultatu proiektuen garapenari dagokion jarduera honako arlo hauetan: 2. Elkarreragingarritasuna eta 4. Arreta Soziosanitarioa.
Proiektuak zer aliantza dituen	<ul style="list-style-type: none"> • Osakidetzako antolakunde sanitario integratuak. • Oinarriko eta foru gizarte-zerbitzuetako profesionalak. • Beste erakunde, eragile eta profesional batzuk.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	Proiektuen garapen-egoerak zaildu egiten du hasierako gauzatze-fasean dauden ekimenak identifikatzea.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	Zenbait ekimen garatuz, epe ertain baten buruan, metodologia bat diseinatu ahal izango dugu ekimen horien emaitzak ebaluatu eta sistematizatzeko, eta horrela, aurrera egingo dugu erakunde sanitarioetan eta gizarte-zerbitzuen sisteman bultzatzea daitezkeen jardunbide egokiak, beste eremu geografiko handiago batzuetara eramanez edo EAE osora hedatzeko modukoak, identifikatzeko bidean.
<p>Baloratu beharreko beste alderdi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer bilakaera esperodun - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	

7. ERANSKINA. PROIEKTU PILOTU SOZIOSANITARIOEN ERREGISTROA

1. Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko osasun-txostena egiteko tresna hedatzea

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko osasun-txostena egiteko tresna hedatzea</i>
HELBURUA	Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko beharrezkoa den osasun-txostena Osakidetza eta foru-aldundien artean trukatzeko tresna elektronikoaren erabilera zabaltzea da helburua. Mendekotasuna baloratzeko diseinatu zen, baina desgaitasunerako ere erabiltzen da. Mendekotasunari dagokionez, informazioa osoa da, baina ez da nahikoa desgaitasunarentzat, eta azterketa-lan bat egin behar da ondorioz. Behar bezala funtzionatzeko, prestakuntza, erraza bada ere, funtsezkoa da. Hedapenez gain, tresnaren erabilera finkatzeko, mantentze-lan ebolutiboa behar du.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Jatorriz, GFAk sustatu zuen proiektua. Gaur egun, beste lurralde batzuetara hedatzen ari da; foru-aldundiek zuzentzen dute prozesu hori, Osakidetza Lehen Mailako Arretako Koordinaziorako Zuzendariordeak, dagozkien ESIen bitartez, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak bultzatu eta sustatuta.
IKERTZAILE NAGUSIA	Fernando Urbano
LANPOSTUA	Koordinazio soziosanitarioa – Osakidetza
HELBIDE ELEKTRONIKOA	fernando.urbanospizua@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua Balorazio eta Orientazioko Atala	Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua Balorazio eta Orientazioko Atala	Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua Balorazio eta Orientazioko Atala	Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua
Balorazio eta Orientazioko Zerbitziburua	Bizkaiko Foru Aldundia
Arduradun tekniko soziosanitarioa	Bizkaiko Foru Aldundia
Balorazioko Unitate Teknikoaren arduraduna	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Antolaketa eta Informatika Arloko Zuzendariordeak Teknika	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Antolaketako eta sistemetako teknikaria	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordeak	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordeak teknika	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arabako koordinatzaile soziosanitarioa	Arabako ESIA. Osakidetza
Integrazioko zuzendaria	Arabako ESIA. Osakidetza
Gipuzkoako koordinatzaile soziosanitarioa	Goierri-Urola Garaiko ESIA. Osakidetza
Integrazioko zuzendaria	Goierri-Urola Garaiko ESIA. Osakidetza

Zuzendaritza medikoa	Bidasoko ESIa
Kudeaketa klinikoa	Tolosaldeko ESIa
Informatikako Zuzendariordetza	Osakidetza
Informatikako zuzendariordetza	Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide funtzional soziosanitarioa	erreferente Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun arduraduna	soziosanitarioa garatzeko BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Mendeko pertsonak eta/edo desgaituak
KRONOGRAMA	Tresna elektronikoaren garapena 2015ean osatu zen. Harrezkero, Gipuzkoan hedatu da, baina Bidasoako ESIan hedatu gabe dago. Bizkaiaren kasuan, 2021ean Deustuko eta San Ignazioko LMAUetan hedatu zen. Araban ez dago hedapen-plangintzarik.
JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano eta Alfredo Alday.

2. Elkarreragingarritasuna telelaguntza izapidetzean

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Elkarreragingarritasuna telelaguntza-eskaera izapidetzean</i>
HELBURUA	<p>Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta Osakidetzak telelaguntza-zerbitzu publikoaren eskaera izapidetzeko orduan informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasuna) aztertu, diseinatu eta inplementatu nahi dira. Elkarreragingarritasunaren baliagarritasuna identifikatu da 4 aukera-elementu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Telelaguntza-eskaeraren izapidetze elektronikoak osasun-txostena aurkeztea hartzen du barnean. Gaur egun, medikuak emandako paperezko txostena eskaneatu behar du pertsonak. Txosten hori Osakidetzari eskatu ahal izatea eta telelaguntzaren eskaeran modu elektronikoan jasotzea lortu nahi da. • Osasun-txostena egitea aurrez aurreko ekintza bat da; hau da, pertsona osasun-zentrora doa, eta medikuak telelaguntzarako txosten mota horretarako eredu bat betetzen du. Aurrez aurreko ekintza ezabatu nahi da, bai eta medikuak automatizatu daitekeen egintza horri eskainitako denbora ere. • Telelaguntzaren eskatzaileak osasun-zentrora joan behar du osasun-txostena aurkezteko. Joan-etorri hori saihestu nahi da, eta Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu- eta Osasun-sistemek informazio hori elektronikoki elkarri ematea. • Telelaguntzako Zerbitzu Publikoak Telelaguntza Plan Pertsonalizatuaren bidez antolatzen du prestazio hori. Plan horrek pertsonaren eta bere ingurunearen profil sozialari buruzko informazioa jasotzen du. Lehen Mailako Osasun Arretarekin informazioa trukatzeko pazienteak hobeto ezagutzea dakar.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza

IKERTZAILE NAGUSIA	Itziar Peña Laustalet
LANPOSTUA	Zerbitzuko arduraduna Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza
HELBIDE ELEKTRONIKOA	itziar.pena@euskadi.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako zerbitzu-arduraduna	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza
Informatikako Zuzendariordetza	Osakidetza
Informatikako arduraduna	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun arduraduna Soziosanitarioa garatzeko	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Telelaguntzaren populazioa (65 urtetik gorakoak).
------------------------	---

KRONOGRAMA	2022an datu-trukearen eredu funtzionala osatu da.
-------------------	---

JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
--------------------------------------	--

ARDURADUNAK	Fernando Urbano eta Alfredo Alday
--------------------	-----------------------------------

3. Koordinazio soziosanitarioa egoitzetan dauden pertsonentzako arretan

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Osasun-sistema eta gizarte-zerbitzuen sistema egoitzetan bizi diren pertsonentzako arretari dagokionez koordinatzeko proiektu pilotua</i>
--------------------------------------	--

HELBURUA	Helburu bikoitza: <ul style="list-style-type: none"> Egoitza-zentroetan emandako arreta pertsonalizatzea eta humanizatzea Alferrikako lekualdaketak eta bideratzeak saihestea
-----------------	---

ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Gizarte Ekintza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia
------------------------------	--

IKERTZAILE NAGUSIA	Lourdes Zurbanobeaskoetxea Larauogoitia.
LANPOSTUA	Balorazio eta Orientazio Zerbitzuko burua Bizkaiko lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa. Bizkaiko Foru Aldundia.
HELBIDE ELEKTRONIKOA	maria.lourdes.zurbanobeaskoetxea@bizkaia.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Birjinetxe egoitza-zentroko zuzendaria	Bizkaiko Foru Aldundia
Santa Marina ospitaleko zuzendari medikoa	Osakidetza
Gizarte Ekintza Saileko aholkularia	Bizkaiko Foru Aldundia
Egoitzei laguntzeko taldeen koordinatzailea	Bizkaiko Foru Aldundia
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeke zuzendariordea	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Balorazio eta Orientazio Zerbitzuko burua	Bizkaiko Foru Aldundia
Bilbo-Basurtuko ESIko Integrazio Asistentzialeko zuzendaria	Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide Integra erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Koordinazio Soziosanitarioa	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Bizkaiko egoitzetan bizi diren pertsonak.
------------------------	---

KRONOGRAMA	<ul style="list-style-type: none"> - 2021eko azaroa: 14 zentrok parte hartu dute borondatez. - 2021eko abendua: autodiagnostiko elkarrizketak. - 2022ko urtarrila. Lantalde bat eratu da egoitza-zentroekin. - 2022ko otsaila. Asteko lan-saioen hasiera. - 2022ko uztaila: Egoitzetako hedapenaren ondorengo jarraipena planifikatzea. Antzemandako alderdiak doitzea, koordinazioa hobetzeko. - 2022ko abendua: Beste eremu batzuetara hedatzea.
-------------------	--

JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA/K	Arreta Soziosanitarioa Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNA/K	Fernando Urbano Ispizua Lucía Iñigo Regalado

4. Elkarreragingarritasuna Arreta Goiztiarrean

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Elkarreragingarritasuna Arreta Goiztiarrean</i>
--------------------------------------	--

HELBURUA	<p>Osasunaren eta gizartearen eremuek informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasunez) aztertu, diseinatu eta implementatu nahi dira, Arreta Goiztiarrari dagokionez koordinazioa hobetzeko.</p> <p>Elkarreragingarritasunaren baliagarritasuna identifikatu da hiru aukera-elementu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta Goiztiarra hiru eremuetako edozeinetan has daiteke. Kasuak hasiera batean eremuren bat behar ez badu ere, egokia litzateke hasten den eremutik besteei jakinaraztea, eskaria planifikatzeko, eta familiekin jarrera proaktiboa hartzea. Horretarako, beharrezkoa da kasu guztiak identifikatzea eta kode bat esleitzea, eremua edozein dela ere. • Azken helburua familiek arreta pertsonalizatuko plan partekatu bat izatea da, eta bertan hiru eremuen esku-hartzea adieraztea. Aldundiek plan horren erreferentia direla onartzen dute;; osasunaren zatia jaso behar du. Oraingoan, osasun-informazioa lortzea zaila da, eta oso onuragarria litzateke informazio-trukea ezartzea. • Haurren arreta integrala kontuan hartuko bada, kasuak eremu desberdinen artean bideratzeko orduan informazioa elkarri jakinarazi behar diote.
-----------------	--

ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo-Basurtuko ESIA eta Enkarterri-Gurutzetako ESIA.
------------------------------	---

IKERTZAILE NAGUSIA	Lourdes Zurbanobeaskoetxea
LANPOSTUA	Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laradogoitia. Koordinatzaile Soziosanitarioa. Bizkaiko Foru Aldundia.
HELBIDE ELEKTRONIKOA	maria.lourdes.zurbanobeaskoetxea@bizkaia.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Balorazio eta Orientazio Zerbitzuko burua	Bizkaiko Foru Aldundia
Desgaitasuna Ebaluatzeko Ataleko burua	Bizkaiko Foru Aldundia
Arreta Goiztiarreko arduraduna	Bizkaiko Foru Aldundia
Pediatriako burua	Osakidetza (Bilbo-Basurtuko ESIA)
Jaioberrien Unitatea	Bilbo-Basurtuko ESIA
Pediatriako burua	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIA
Pediatriako burua	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIA
Haur eta nerabeen psikiatra eta psikoterapeuta	Bilboko Haurren eta Nerabeen Osasun Mentaleko Zentroa (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, BOMS-Osakidetza).
Haurren Osasun Programa (HOP)	Bilbo-Basurtuko ESIA
Fidelizatze/Bezeroak Departamentua	LANTIK
Berrikuntza eta sistemen atala. Gizarte Ekintzako Zerbitzu Orokorrak	Bizkaiko Foru Aldundia
Familia eta Haurren Zuzendaritza	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
Informatikako Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun arduraduna	Soziosanitarioa garatzeko BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	0-6 urte
KRONOGRAMA	2022an datu-trukearen eredu funtzionala osatu da.
JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano eta Alfredo Alday

5. Elkarreragingarritasuna arreta integratuan. Gizarte Zerbitzuak / Gernika KIUA

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Elkarreragingarritasuna hemen: «Arreta Integratuko Protokoloa. Gizarte Zerbitzuak / Gernika KIUA»</i>
HELBURUA	Gizarte Zerbitzuek eta Gernika KIUAk –Gernika, Gernikaldea, Bermeo eta Lekeitio hartzen ditu barnean– informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasunez) aztertu, diseinatu eta inplementatu nahi dira. Elkarreragingarritasunaren baliagarritasuna identifikatu da honako aukera-elementu hauetan: <ul style="list-style-type: none"> - Interkontsulta soziosanitarioa. - Agenda partekatua. - Baimen informatua. - Plan partekatua.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Barrualde-Galdakaoko ESIa (Gernikaldea)
IKERTZAILE NAGUSIA	Iñaki Laboa
LANPOSTUA	Gernikako Ospitaleko arduraduna
HELBIDE ELEKTRONIKOA	inaki.laboacalafel@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Gernikako Ospitaleko arduraduna	Gernikako Ospitalea
Arreta Integratuaren zuzendariordea	Barrualde-Galdakaoko ESIa
Koordinazio soziosanitarioa	Barrualde-Galdakaoko ESIa
Idazkaria	Gernikaldeko LMAUa
Erizaintza	Gernikaldeko LMAUa (Osakidetza)
LMAUko burua	Gernikaldeko LMAUa (Osakidetza)

Gizarte Zerbitzuen Koordinazioa	Busturialdeko Mankomunitatea
Informatika Zuzendaritza	Barrualde-Galdakaoko ESIA
Informatikako teknikaria	Barrualde-Galdakaoko ESIA
Informatikako Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun arduraduna	Soziosanitarioa garatzeko BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Kasu soziosanitarioak Barrualde-Galdakaoko eskualdean
KRONOGRAMA	Probako proposamena: 2022an, eta 2023an beste eremu batzuetara hedatzea.
JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Arreta Soziosanitarioa Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano eta Alfredo Alday

EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea

